

FITO RODRIGUEZ

Gontz garaia

**(Ipuinak kontatu ezin
dituztenei)**



*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren
diru-laguntza jaso du*

© Fito Rodriguez

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2014ko uztaila

ISBN: 978-84-941044-8-0

Lege-gordailua: SS-832-2014

Irudiko azala: Fito Rodriguez

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE

Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Iparraldean: 0033547640386

BANATZAILEAK:

BITARTE – 31195 BERRIOZAR (NAFARROA).

TEL.: 948-302239

JAKIN – 64100 BAIONA (LAPURDI)

TEL.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utrusque.com/utrusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

FITO RODRIGUEZ

Gontz garaia

**(Ipuinak kontatu ezin
dituztenei)**

Utriusque Vasconiae

AURKIBIDEA

| | |
|---------------------------------|----|
| Hastapenak | 7 |
| Gontz garaia | 11 |
| Zergatik? | 15 |
| Inperioen arteko borroka | 19 |
| Iruditeria | 21 |
| Mende Luzea | 23 |
| Basatiak | 25 |
| Maisu ezjakina | 27 |
| Napoleon Kodigoa | 29 |
| Donostia errea | 33 |
| Politika inperialista | 35 |
| Moderniaren trena | 37 |
| Gerraren hondamendiak | 39 |
| Napoleonen garaitza | 43 |
| Erromantizismoa | 45 |
| Nazioen aldarri bukaezina | 49 |
| Intelektualen egia | 51 |
| Herrien egia | 55 |
| Nazioaren egia | 59 |

| | |
|------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| Legearen egia | 63 |
| Askatasuna betebeharra | 65 |
| Agindu kategorikoa | 67 |
| Tokian tokiko kultur garapena unibertsalismoaren aurrean | 75 |
| Oraingo sasoiak | 83 |
| Testu-aurre nazionalistak eta na- zionalismoaren aurreko testuin- guruak | 85 |
| Gleichschaltung | 89 |
| Nazionalismoa XXI. mendean . . . | 93 |
| Bibliografia orokorra | 101 |
| Bibliografia euskaraz | 105 |

HASTAPENAK

Galerna zetorren ipar-ekialdetik, garai arraro xamarra baina bortitza halere, eta ilunabarreko argi eskasa dirdiran ari zen faroletako argiztapenen gorabeherak eraginda. Grisa argia gris marengo bihurtuta. Gris krisia. Metal urdin urdindua. Eta argindarren etenak.

Bat batean, gau. Argi iluna ondoren.

Autobusetako geltokiaren ondoko panelean “Donostia Travn i k” ageri zitzaidan irakurgai.

Eta gero, deus ez.

Donostiako Tranbia konpainia, azaldu zen argindarra itzulitakoan.

Donostia erre eta suntsitu zuteneko bigarren mendeurrena ari zen gogoratzen urte hartan.

Zerk lotzen du gure Euskal Herriko Donostia eta Bosniako Travnik orain...?

Eta duela berrehun urte?

Zer dela eta, galerna ilunabar batean, Donostia Travnik irakurri nuen nik Askatasunaren ibilbidearen erdian nengoelarik?

“For those who can tell no tales” izenburua zezarman 2013ko Donostiako Zinemaldiko Sail Ofi-

zialean aurkeztutako film bosniarrak. Bortxa nagusitzen denean nekez adieraz daiteke ezer, eta hura dute elkarrekin, besteak beste, Donostiak eta Travniketik, Euskal Herriak eta Bosniak. Orain, duela hogeita urte eta duela bi mende. Eta horretaz hitz egiteko eta idazteko zailtasunak.

Fikzioa ez denaz aritzeko sortu omen zen saiakera. Ikertzeko baina, akademizismoz harago betiere, egoerak erlatibizatzen jakiteko eta, halaber, oroimenaren bidez, ikasteko.

Bide horretatik joaten saiatuko naiz ni ere. Hitz hutsalez gain, irudi poetikoak lagun, zubia eraikitzeke asmoz Donostiaren eta Travniken artean.

Drina (edo Lasva...) gaineko zubia, Urumea alderik alde doazen zubiekin kateatzeko, katebegiz katebegi.

Elkar ulertzen hasteko, bakoitzak eduki ditzakeen susmo, aurreiritzi edota igurikimenen gainetik, abiapuntua azaldu beharra dago balizko irakurketa erratuak errotik baztertuz, asmoz behinik behin. Hau da, hasierako izenburuari so eginez gero: “Donostia / Travnik”, baten batek pentsa lezake Kirmen Uriberen lehenengo eleberria metaforatzat hartzen dudala edota Jose Antonio Agirre lehenakariak, 1942an eta New Yorken, Columbiako unibertsitatean irakasle zela, “De Guernica a Nueva York pasando por Berlín”, idatzitako liburuaren antzekoa izango dela irakurtzen hasi zaren izkribu hauxe; izan ere, liburuak liburuaren gainetik irakurtzen ikasi dugunez, ezinbestekoak suertatzen ohi dira aurrekariak, eta ondorioz, aurreirakurketen ohitura horretaz nekez aska gaitetzke...

Hasteko, beraz, hastapenetatik hasiko naiz, “Gontz” garaitik. Denborak, eguratsak beste, aldatetan baitauka oinarria baina, aldiz, ez da erraza izaten aldaketa haiei behar bezala erreparatzea. Izan ere, eraldaketak apal bezain iraunkor gertatzen baitira, oharkabe igarotzen diren moldaketa eta mudantzak, eta galerna sasoieta izan ezik, ez dira aise sumatzen. “Gontz garaia” denbora historikoan galerna eguraldian dena izango litzateke, beraz. Une bat, zeinean zegoenak eta datorrenak bat egiten duen, eta non ohiko denboraren isuri geldoa partez bat-bateko aldaketen osagaiei batera antzeman dakieken.

Aro aldaketa hori jazo zen Donostian 1813. urtean. Hurregoan, Baionan.

Bai eta Bosniako Travniken ere.

GONTZ GARAIA

Gontz garai horretan jazo zen Euskal Herrian, are espainiar estatuan ere, lehenengo Berrezarpen politikoa deritzana, zeinaren arabera, Monarkia borbondarrak agintea berreskuratzearekin bat, aldez aurretik frantses Iraultzatik eratorritako gizartea modernizatzearen aldeko giroa garaitua izan zen, ilustrazioaren aurkako gurutzada absolutista ezarriz, ondorioz.

Gugandik gertuago, “Trantsizioa” esan izan ohi zaion bigarren Berrezarpen borbondarraren sustraiak hor daude, gerrate ondorengo giro hits bezain atzerakoian oinarrituta, eta Espainiaren politika egiteko modua.

Garai hura, 1813/14ko “Gontz” bolada izendatu dudana, ikertzen saiatuko naiz hurrengo lerroetan. Ez baita, bada, orduan gertatutakoa, argiaren eta ilunaren arteko borroka soilik izan, arrunke-riaren aurrean berariazkoaren balioztatzea baizik, non, Herrien kultur ekoizpenak (tokian tokiko herri jatorrei miresmen aurrerromaikoa barne), baita Euskal Herriaren ezaguera ere, Europa osora zabal-tzen hasi ziren Napoleonen eraginez.

Materialismoaren kontrako garaia, idealismoei itsatsia, askatasunaren bultzatzailea.

Arlo honen irakurketa, kultur ikerketaren ikuspegi horretatik egingo dut nahiz ideien ikuspuntutik ere. Hortik abiatuta, idazki hau ideien historiari buruz izango duzu, irakurle, eta, literaturaz ez naiz ahaztuko eleberriak eta guzti erabiliko baititut garatzerakoan.

Honetaz guztiaz aritzeko betiere.

Nire aburuz, horrela uler baitaiteke, adibidez, Jean Baptiste Berardotte-ren istorioa, orduko giro ideologikoa ezagutzeko baliagarria dena eta Norvegiako independentziari buruzko historiak jabetzeko lagungarria (Txillardegi in BBAA; (2000) *Burujabetza XXI.mendean*. UEU/Ezbaika. “Norvegiaren nazio-askapena”. 119/124 or.), zeren aipatu independentzia garai horren ondorioa denez, aurrerantzean horri buruz aritzeko astia izango dugu eta.

Halere, hau saiakera literarioa besterik ez dela berresan beharra dago, eta noski, inork ez du lerro hauetan ikasgai historikoa bilatu behar herri bizitzari buruzko hausnarketa baizik.

Ildo horretatik, nolabaiteko ideien kateatze honetan katebegia besterik ez da datorrena, orduko euskal kulturaz izan ditugun ikerketekin bat doana.

Jorratuko dudan gaia, beraz, Napoleonen garaiko ideologia eta kulturaren egoera da, lehenengo “gontz” bolada; horregatik, “Donostia-Travnik” izenaz idatzi dut hasieran, eta bukaeran, ikusiko dugunez, “Dubrovnik-Bilbo” pareta erabiliko dut honetaz guztiaz izkiriatzeko.

Hori dela eta idatzi nuen “Donostia / Travnik / Dubrovnik / Bilbo” izeneko arikulua (in *Astro-labio. Revista internacional de filosofía*, 2013. 15 zbk. 185-195 or.), 1814eko apirilaren 18an Gazan jeneralak (Napoleonen partez) eta Murrayk (Wellingtonen ordezt) sinaturiko hitzarmenak Europa osoan gertaturiko aldaketa baten mugarrria izan zela azaldu ahal izateko.

Egia da bakea hitzartu ondoren Baionako borroka apirilaren 27ra arte iraun zuela eta Wellingtonek ekainaren 14ra bitartean eutsi ziola aginteari baina 1813/14. urte pareak europar bizierari kultur aldaketa ekarri ziola ez dago dudarik.

Beraz, orain gertatzen ari denaren antzera, orduan gerra bidez eta oraingo honetan era “sasibaketsuan” bada ere, Europako estatuen kopurua nahiz elkarren arteko harremana zeharo eraldatu zen. Horri buruzko gogoeta egitea da idazki honen mamia.

Bere marrazki beltzak izendatzeko “Arrazoiaren loak munstroak sortarazten dituela” esan zuen “Gontz garaian” Goya margolariak. Horrela, arrazoiako bideak lotan daudenean, demasak besterik ezin dela espero adierazi nahi izan zuen 1813/14 sasoi haietan.

Orain, berriz, egungo “gontz garaian”, arrazoiak amets munstroak sortu izan dituela esan genezake, hemen nahiz Travniken.

Ildo horretatik, ez dut uste izkribu hau, jakina, saiakera historikotzat bakarrik har daitekeenik, egungoa ulertarazteko entsegu kulturala izan nahi duela baizik, “gontz garaian”.

ZERGATIK?

Zeren eta “Donostia / Travnik / Dubrovnik / Bilbo” izenburuarekin salatu nahi izan nuen Napoleonen garaiko gerrak eta 1813ko Donostiaren suntsiketa ulertzeko, bigarren mendeurrena izan delarik, Donostiaren historia lokala egin izan dela gehienez, hau da, eskainitako ia dena Donostiako erreketaz, birrinketaz eta abar izan dugula soilik.

Orduan zer ikusi behar du Travniketik horrekin? Travnik Bosnian dago.

Eta zergatik lotzen dudan Donostia-Travnik eta gero Bilbo-Dubrovnik aipatuko dut?

Dubrovnik Kroazian dago baina, oso-oso hegoaldean, Adriatikoko itsasaldean, hain zuten ere, eta ez du ematen Euskal Herriarekin zerikusirik handia duenik.

Bada, esan beharra dago “gontz garai hartan” egoera berdina izan zela, berez, aipatu lau tokietan, baina, halaber, oso ezberdina ere bai.

Hau da, berdina izan zen denek, Donostiak, Travniketik, Dubrovnikek edo Bilbok, Napoleonen eragina pairatu behar izan zutelako garai hartan eta denek nozitu zuten hori, toki bakoitzeko gizarteak orduan zabaltzen ari ziren ideiak bere egin

zituelako bertan zeuden berezko osagarrien arabera eskuratuz.

Osagarri horiek, ordea, ez ziren bakarrik betegarri militarrek edo estrategikoak, baizik eta bereganatze horretan, modu konplexuan, puzzle baten antzera hartu zituzten, oso ikuspegi kontraerriak, ondorio politiko ezberdinak eman zituztenak, jakina, nahiz eta denak kanpoko eragin berdintsupean egon.

Ivo Andritxek, Jugoslavia existitzen zenean literatur Nobel sariduna izan zenak, servokroazieraz idazten zuen, eta hark idatzitakoa euskaraz irakurtzeko ere aukera badaukagu egun. Funtsezko bi liburuak eskura daukagu. Bat, *Drina gaineko zubia* da, eta bigarrena, *Travnikeko kronika* dugu. Azken honetan kontatzen digun historia kontsul napoleoniko bati gertatutakoaren pasadizoak dira. Kontsula Travnikera iristen da eta hor aurkitzen ditu, alde batetik, bertako inperioaren ordezkariak direnak, inperio otomandarren agintariak, eta bestetik, une berean, inperio austrohungariarren kontsula bera, bera bezala etorri berria.

Denak biltzen dira Travniken, Bosniaren bihotzean, Napoleonen gerrak direla bide eta haien arteko tirabirak ditugu liburuaren haria eta funtsa.

Orain, gurean, errelatoaz hitz egiten denean, Euskal Herrian egin behar dugun kontakizuna ulertzeko, noski, errelato hori ezin da ikuspegi laburreko kondairaren bidez aldarrikatu, ezta gaiaz motzean planteatu ere eta azken urteetako errelatoaz aritu soilik.

Ez noski, guk gure historia idazten jakin behar dugunez, gure kronikak idazten jakin behar dugun hein berean, eta horretarako, jakina, berrirakurri egin behar da orain arte gure historiaz idatzitakoa eta isildutakoa, hipotesi berriak zabaldu eta polemikak ireki eta eztabaidatu ondoren ebatzi edota iritsi gure historia behar bezala ulertzera eta ulertaraztera. Duela berrogei urtekoa edo bi mendekoa dela.

Kasu honetan, ikusiko dugun moduan, Donostiaren erreketaz historia egitea planteatu izan denean, espainiar historiografiak Independentzia Gerraz hitz egin ohi du, Espainiaren Independentziaren gerrak Donostian gertatutakoa ulertzeko ezinbesteko testuinguru dela aldarrikatuz.

INPERIOEN ARTEKO BORROKA

Baina bertan izan zena, ordea, inperioen arteko borroka bat izan zen, Travniken bezala. Eta inperioen arteko borroka horren ondorioz, ikusiko dugunez, beste independentzia batzuk sortu ziren. Adibidez, 1813an Bolivar Caracasen sartu zen. Garai bertsuan Hidalgo borrokan ari zen Mexikon, Paraguaik independentzia lortu zuen baita ere Mar de la Platan hasi ziren borrokaldiak, ondoren, Argentinaren independentzia ekarriko zutenak.

Zer gertatzen ari zen Balkanetan, ordea? Antzekoa. Hau da, borrokaldiak piztu ziren eta inperioen arteko guda horien ondorioz beste herri batzuek beren estatuak sortzen zituzten, eta hor ez zegoen Espainiarik.

Historia ez baita gertatutakoa bakarrik, historia gertatutakoaren kontakizuna da. Eta kontakizun horren atzean daude metodologiak, teoriak, hermeneutikak, eztabaidak, isiluneak, fikzioak, mitifikazioak eta, jakina, haien atzean dauden ikuspegi linguistikoak, kultural, nazionalak eta abar hartu behar dira aintzakotzat.

Historia gauza konplexuen kontakizuna da, herri bizitzaren errelatoa, ez gerren kronika bakarrik,

eta konplexutasun horri heldu nahi diot nik lantxo honetan.

IRUDITERIA

Liburutegietan aurki daitezkeen 1813ko urteko irudiak. European zehar hamaika horrelako iruditegi daude. Gehienetan, errepresentazioaren alde batean, ingelesak ikusi ohi dira, eta bestean, frantsesak. Har dezagun Koldo Mitxelena liburutegian aurki daitekeen Gasteizko Borrokari buruz W. Heathek eginiko grabatua, adibidez; irudi horrek, ikuspegi orokorrekoa izan arren, tokian tokiko gertaerak ulertzen lagundu behar liguke, baina britainiarrak eta frantsesak besterik ez dira azaltzen nahiz eta borrokalariak askoz gehiago izan ziren, jakina. Gauza bera, noski, Donostian, Leipzigen edo Travniken. Gertatutakoa argitu nahian, konplexua dena sinplifikatu egiten da, eta, ondorioz, ezberdintasunak eta aniztasunak galdu egiten dira bidean.

Pixka bat hurbiltze aldera, zera esan behar dut, 1813ko horretan ere, aurretik datozen eragin funtsezko batzuk Frantziako Iraultzatik eta Ameriketako Deskolonizaziotik zetozela, baina beste batzuk, berriz, oso bertakoak izan zirenik ez dela ahaztu behar. Gure kasuan, adibidez, bi estatuen arteko muga gogortzea, iraultzaren ondorioak euskararen garapenean, konbentzioaren “konkista”

(1794) eta “euskal estatuen” ezarpen praktikoa (1808/1813) nahiz aldarrikapen politikoa (Garatzenarena, 1811an) .

Horiekin guztiekin, historiografiaren ikuspuntutik, Mende Luzea deitua izan dena hasi zen. Mende Luzea, jakina denez, Eric Hobsbawmek XIX. mendea ulertu ahal izateko planteatu zuen izendapena da (Hobsbawm, 1994).

MENDE LUZEA

Mende Luzea 1776an hasiko litzateke, hau da, Estatu Batuen Independentziarekin, Pensilvaniako aldarriarekin. Frantziako Iraultza ere hor dago (1789). Eta Mende Luze hori, berriz, 1917an bukatuko litzake, Sovieten iraultzarekin. Hori izango litzateke XIX. mendea. Beraz, mende kronologiko bat baino gehiago, nahiz eta, historiaren ikuspuntutik behintzat, hala ulertzen, urteka alegia, ohituta gauden.

Hobsbawmek esan zigun Mende Luze horren ondoren Mende Laburra dator. Mende Laburra 1917tik 1989ra bitartean doana litzateke, hau da, Sovieten Iraultzatik Berlingo Harresia erori bitartekoa. Eta ondoren hasten da moderniaostea deitu ohi dena.

Beno, hala Mende Laburrean nola Mende Luze horretan kontakizun handiak daude, batik bat Mende Luzean, eta aldiz, Mende Laburra bukatu ondoren, kontakizun txikiak dauzkagu. Hau da, bukatu egiten dira errelato handiak eta kasu egiten zaie txikitasunari eta esplikazio mikrofisikoari, nolabait esateko. Tokian tokiko historiaren eta historia lokalaren loraldia izan dena.

Eta honek zer planteatzen digu? Historiaren ikuspuntutik metodoen ikuspegi ezberdinak eskuratu behar izaten direla azpimarratzen digu. Horietako batzuk forensearenak edo arkeologiarenak dira. Eta bide horretatik betiko historiari kritika batzuk egin izan dizkiote, Hobsbwamek (1994) Mende Luzea (XIX) eta Mende Laburra (XX) defendatu zituenetik eta, “hizkuntza itzulera” gertatu zenetik (Bergmann. 1953/Rorty 1967), “zibilizazioa” edo “aurrerakuntza” kontzeptu modernoak susmagarri bihurtu dira eta europar estatu modernoek eraikuntzak alde ilun asko erakutsi dizkigulako.

Norbert Eliassen laguntza behar izan dugu, baita Hélène Clastersena ere, edo Pierre F. Moureurena, edota Michel Korinmanena modernitatearen prozesua behar bezala ikertzeko. Eta, oroz gain, F. Châteleten eta Michel Foucaulten ekarpenak funtsezkoak suertatu zaizkigu gizabanakotze bideak eta ustezko zibilizazioa ulertzeko, progresoaren amets aratzak baino gehiago begirada inperialistak sortutako amets gaiztoak direla. Eta haietan oinarritzen dela Berrezarpenak birrindutako Iraultzaren ekarpena nahiz egungo herri subiranotasunaren jazarpena.

BASATIAK

Rousseauk edo Diderotek “basatiez” idatzita-koak, “jende arriskugarri hori” (Blom. 2012), Montaigneren eta Ronsarden ildotik hartutako gaiak izan ziren baina, haiek ez bezala, basatien bidez “gizaki modernoek” aritzeko idatzi zuten. Montaigneren eta Ronsarden idazkiak “antropologikoak” ziren, orduko ohiturak eta beste erlatibizatzeak, baina Rousseauk edo Diderotek, gainerako entziklopedia egileek bezala, gizarte berria eta politikoa definitu nahi izan zuten basatiak aitzaki (Clusters.1978).

Baina berriztapen ideologiko horren partez, Direktorioa, Kontsulatua eta Inperioa ere etorri ziren iraultzaren izpiritua eta praktikak ordezkatzeko eta, bide batez, lege nahiz araudien inboluzioa oinarritzeko “gontz garaian” Évelyne Pisier-Kouchnerk (1978) erakutsi zigun moduan.

Historia-metodoek, metodo zientifiko arkeologikoak izan behar dute. Era berean gai berriak planteatzeko gauza, eta gai berriak dira ez gertakizun belikoak soilik egungo historia hausnarketak landu behar dituenak, eguneroko bizitza, adibidez, jende xeheri begiratu behar zaiolako, genero ikus-

pegitik ere ikertu eta ildo horretatik ondasun imateriala bezalako gaiak aztertu. Hau da, ez bakarrik uki daitekeena, baizik eta ideiak, iruditeriak, irudikapenak eta errepresentazio horiek guztiak.

Ildo horretatik ekingo diot nik ikerketa honi, hau da, Napoleonen garaiko gerrak aztertu (ez espainiar independentziarena) eta batik bat orduko ideologiaren eta kulturaren garapenaren historiari erreparatu. Hori da “Donostia-Travnik” hau, txiki-tasunari kasu egitea, besteak beste, Donostiaren bidez nolabaiteko metafora bat erabili ahal izateko, Donostiaren suntsiketa izan zelako zibilizazioaren erabateko aldaketaren seinale: “Gontz garaia”.

MAISU EZJAKINA

Horrela deitu zion J. Rancièrek bere ikerketa berria zabaltzen hasteko plazaratu zuen liburuari (1985; *Le Maître ignorant*), Frantziako Iraultzatik sortatutako ideien iraultza aztertzeko, hain zuzen ere, hala nola, konkistaren edo progresoren ideologia, gizakiaren irudikapen zahar-berritua edota gudaren nahiz bakearen formulazio modernoak. Joseph Jacotot irakaslearen jarduna aztertuz, emantzipazio intelektualarentzako bost proposamen plazaratu zituen errotiko berdintasunetik abiatutik, jakintza lantzeko demokrazia erradikaletik. Ideia haiek egon ziren Napoleonen gerren atzean eta hori ikertzea, Rancièrek irekitako bidetik, eta behar bezala azaltzea izango da ekarpen honen helburua.

Eta hori ulertu ahal izateko hasiko naiz lehenengo planteamendu ideologikoa argitzen, ustez behintzat.

Honatz: egungo mundua ez genuke ulertuko, adibidez, *Biblia*, *Coran* edo Marxen *Kapitala* liburuei erreparatu gabe. Hau da, idazki hauek guztiak ez dira historikoak, baina historia egin dute. Bizitza ulertzeko ereduak, paradigmatik ematen dizkigute. Paradigmatik, azkenean, zer dira? Eredu

linguistikoak, hau da, Bibliak ematen digu ikuspegi bat, Marxen *Kapitalak* beste ikuspegi bat... eta abar.

Zergatik? Zeren haien bidez ideiak, portaera bihurtzen dira, eguneroko praktika zehatzak. Bena, bada, haiekin batera maila berean daukagu aipatutako *Napoleon Kodigoa*. Hark gizarte modernoan ematen diren harremanak moldatu egin zituen zeharo. Hau da, *Napoleon Kodigoa*, Marxen *Kapitala* edo Bibliaren pareko testua dugu. Zeren eta egungo modernitatea hantxe oinarritzen baita. Gero sartuko gara horri buruzko eztabaidan.

NAPOLEON KODIGOA

Beraz, argi gera bedi testu horretan aurkitzen dugula berdintasuna juridikoki aldarri lehen aldiz, eta hori, bistan da, Frantziako Iraultzaren garaipena izan zela, Iraultza bera, eta bai Napoleon ere, garaituak izan arren. Hau da, Frantziako Iraultza Inperio bihurtu zen, baina Frantziako Iraultzaren mezuak eta praktikak iraun egiten du, adibidez dibortzioaren eskubidea edo Estatuak laikoa behar duela izan, edota elizarekiko bereizi beharraren jarrera instituzionalak eta administratiboak.

Eta hori da Napoleonen garaitza, garaipen ez-militarra, bizitzaren eraketa moduan iraun duena baizik.

Napoleonek administrazio berri bat sortu zuen, gaur ezagutzen dugun Estatu modernoak: funtzionaritzaren arabera antolatua, eskola nazionalaren bidez legitimatua baita biztanleria guztiak osatu behar zuen armadaz defendatua ere. Eta hori guztia antolatu zuen gudarostearen antzera, hau da, eskola izango da kaserna txiki bat. Beraz, biztanlegoa antolatu ahal izateko leloak eta kontsignak zeuden bezala, eskola ez da izango soilik eskubide bat, betekizun eta betebeharra baizik. Derrigorrezkoa

izango da eta jende denak pasatu behar izango du hortik honek ekarriko dituen ondorio guztiez.

Beno, hauxe aztertzeke, liburuek bizitza nola antolatzen duten, J. Rancièrez gain, F. Châteletek zuzendu zuen “Ideien Historia”ren proiektuaren laguntza dugu, zeinean M. Korinmanek aztertu zuen lurraldetasuna kontzeptuaren gaineratzea, hau da, Napoleonen garaitik aurrera nola hasten den geografia zientzia militar izatetik zientzia zibila izatera igarotzen, eta horren arabera, nola mugak hasten diren finkatzen modu irmoan mapetan nahiz errealtatean.

Ildo beretik, nola europar ametsa zurien ametsa den ulertzeke, eta gainera zurikeria galanta esango genuke euskaraz, Michel Korinmanek eta H. Clastresek aztertu zuten Iraultza garaiko intelektualek deskribatu zuten gizaki basatia. Garai hartan, jakina denez, J.J. Rousseauk berak bere teoriak gizarteratzeko erabili zuen basatiaren irudia baita D. Diderotek gauza bera burutu zuen salbaia hezigabearen adibidea ere. Zertaz ari ziren eta zergatik bihurtu ziren basatiak, gizaki naturala pentsatzeko funtsezko erreferenteak?

Ahaztu gabe Pierre François Moreauk, hau da, Reimseko Unibertsitateko ikerlariak landutako atzeritarren zuzenbidez idatzitakoa, hau da, giza eskubideen aldarrikatzen aurrekariak izan ziren De las Casas, Vitoria eta enparauek nola ulertzen zituzten basati horien eskubideak eta, horren kritikaren bidez, nola sortu zen ondoren gizaki unibertsalaren eta eskubide unibertsalaren nahiz moral unibertsalaren planteamendu bateratua, orain arte iraun duena.

Sarrera honekin bukatzeko, aipa dezagun alboratu ezinezko Norbert Eliasen ekarpena, egun erreferentea dena, zibilizazioen eraldaketez ohartzeko. Kontuan izan zibilizazioa, noski, *civitas*-etik datorrela, hiriaren aldaketatik datorrela. Hiri fisikoaren bizitza antolatzeko moduaren aldaketak direla medio etorriko baitira urbanitatea eta kosmopolitismo bezalako praktika berriak.

Dena *urbe, hiria, civitas, polis...* hau da, herrien birmoldaketak (harresien birrinketak eta desagertpenak, adibidez...) modernitatearekin bat egiten duen bizimodua ekarriko du.

DONOSTIA ERREA

Horixe izan zen Donostian gertatu zena, hura izan baitzen Donostian gertaturiko azken borroka handia, 1813ko suntsiketaren ondorengo harresiak bota beharra hiria beste bizimodu batez antolatze-ko. Sakonduko dugu honetan.

Has gaitezen zibilizazioaz. Zibilizazioa, kultura eta politikaren ondorioa baita. Zer gertatzen zen 1800 eta 1808 bitartean gure inguru kulturallean? Bada, esaterako, Kulturaren Fichtek *Alemania nazioari mintzaldia* argitaratu zuela eta horrekin batera hasi zela planteatzen politika arazoa nazioaren ikuspegitik. Herria, beraz, nazio bihurtuko da, eta nazioa izango da, hain zuzen ere, planteamendu kultural batetik trinkotutako gizataldea.

Jakina, Hegelen *Izpirituaren fenomenologiak* ekarriko du sasoi berean idealismo dialektikoa. Eta idealismoa, ez materialismoa, izango da garai honetako funtsezko gaia. Schillerek argitaratu zuen *Gilem Tell*, Suitzan kokatu zuen herri kondaira horren jatorria eta zer da Gilem Tell? antimonarkiko bat, baita herri heroia ere.

Ordukoa da monarkiaren aurka zabaltzen hasi zen mitologia. Bestalde, Schilleren erromantizis-

moarekin batera Beethovenek *Fidelio* plazaratu zuen. Beethoven, iraultzaren aldekoa zena. Gogoratu beharko dugu Napoleonek gonbidatu zuela, beno ez dakit datu hori konfirmatuta ote dagoen baina hala diote behintzat, enperadore izendatzeko izan zen ekitaldira eta gorrak gorrarena egin zuela eta ez zela agertu, ez eta enperadorea agertu ere. Beethovenek, bistan da, ez zuen maite inperioen iraultza izan zena, bera Iraultzaren aldekoa baitzen. Esaten dutenez, beste pertsona batek ere ezetza eman zion Napoleoni, Simon Bolivarrek. Hark ere ez zuen parte hartu nahi izan Napoleonen koroatzearen unean.

Honek guztiak badu bere garrantzia, kultura aldetik soilik izan arren, zeren, goian esan bezala, ez dut hemen aztertu behar Napoleonen arlo militarra soilik, orduko giro kulturala eta politikoa bai-zik, eta horretarako Napoleonen ekarpena ikuspegi “zibilizatzaile” horren arabera ulertua behar izango da, azkenean.

POLITIKA INPERIALISTA

Politika “zibilitzaile” horren arloan zer ikusten dugu, ordea? Estrategikoki, adibidez, Wellington garai hartan Indian dagoela. Indian izan zen kolonialismo unibertsalaren hazkundera, garai hartatik aurrera progresoren seinale nahiz akuilu izan zena. Oso gauza interesgarria gertatu zen orduan. Alde batetik, Frantziak, eta bere izenean Napoleonek berak, Louisiana Ameriketako Estatu Batuei saldu zien. Honek sekulako garrantzia izan zuen; ziur aski, hala gertatu izan ez balitz, gaur denok frantsez hitz egingo genuke nazioarteko harremanetan ingelesez hitz egin beharrean (Ferguson 1997). Hau da, foku kultural inportante bat garai hartan Ameriketako Louisianan zegoen, eta frantsesegaz egiten zuten. Baina Napoleonek saldu zien Estatu Batuei, potentzia etsaia zen garai hartako Britainia Handiaren kontra jotzearen, horrela bere kolonia izandakoa, askatu berria zen hori, laguntzen zuelakoan. Eta orduan, hortik hasi zen Louisiana anglofonotzeko bidea.

Trafalgarreko porrota 1805ean izan zen, baita Inperio Germanikoaren amaiera ere. Hau da, garai hartan suertatu zen europar haustura instituzionala mundu zaharrarekin, izan ere erromatar elizarekin

zegoen hitzarmen politikoa, enperadore zaharrek egin zutena eta Napoleonen ondorengoa ez zela berdina izan. Eta noski, independentzia gerrak, horiek bai independentzia gerrak, ez Espainiarena bezalakoak, zeren Espainia, Frantzia eta Ingalaterraren arteko gerrak ez ziren independentzia gerrak, inperioen arteko gerrak baizik

Adibidez, 1813an okupatu zituzten indar napoleonikoen Iстриa, Dalmazia eta Kroazia, otomandarren inperioaren mendeetako agintea ordezkatzuz. Honen ondorioz, Austria-Hungariaren itzala hasi zen zabaltzen lur haietan, bai eta haren aurkako erresistentzia serbiarra ere, azkenean, Balkanetako izaera nazional berriak gorpuzten lagunduko duena. Nazionalismoa, beraz, moderniazen seinale politiko bihurtuko da...

Honek guztiak zer ekarri zuen?

Bistan da, sekulako aldaketak zibilizazioan, eguneroko bizitzan ondorio asko izango dituztenak.

MODERNIAREN TRENA

Bat, adibidez, lurrontzia. Hau da, itsasoan nahiz lurrean zebilen tren hori bihurtuko da moderniaren ikurra. “El tren de la modernidad” diotena, galdu behar ez omen den hura uretan ere bazebilen, itsasontzia zen uretako trena. Horrek kapitalismoaren makinismoa ekarri zuen baita ere. Eta zer ekarri zuen, makinismoak? Bada, adibidez, beraren kontrako borrokak, erresistentziak, ludismoaren sorrera (makina birrintzaileak), lehenengo sindikatuak ea...

Arma berriak hasi ziren antolatzen orduko Gay-Lussac deituriko gasen dilatazioaren legeen arabera. Morfinaren aurkikuntza ere sasoi hauetakoa da, medikuntzaren ikuspuntutik baina baita ere nitasuna sortzearen alde funtsezkoa izan zena (Freudek berak morfina erabiltzen zuen eta soinaren kudeaketa berria ekarri zuen horrek). Erdi Aroko esklabutzaren bukaera suertatu zen Prusian, hori Frantziako Iraultzaren beste ondorioetako bat izan zen, civitas edo zibilizazioa eraldatu zuena; giza elkarren arteko portaerak aldatzeko funtsezkoak izan zitezkeen gertaerak agertu ziren bolada honetan.

Baina niri interesatzen zaidan garaian, 1813an, askoz ere gauza gehiago suertatzen ziren gontz unera iristeko. Orduan, 1813a, bai Donostian, baita Travniken ere, hala Bosnian, nola Euskal Herrian, mundua aldatzen ari zen. Eta zer-nolako eraginak izan zituen aldaketa multzo horrek toki bakoi-tzean? Bada, esan bezala, bertako osagarrien arabekoa betiere. Orduan, kulturari *Fausto* antzezlanaren ezagutarazi zuen Goethek, arte arloan Gontza bera izan zena, zeren Fausto, berez, bi Fausto dira, bata erromantikoa da erabat, eta bestea, klasizismoan oinarritutakoa da, askoz ere arrazionalistagoa. Dikotomia hori sasoiko eguneroko pentsamenduan barreiatu egon zen.

GERRAREN HONDAMENDIAK

Goyaren *Gerraren Hondamendiak* ikusgai egon da Donostiako San Telmon 1813ri buruz egin duten erakusketan, eta hor aukera egon da Goyaren garaiko marrazkiak, grabatuak eta gainerakoak ikusteko non, iruditeria berria azaltzen den, non herria azaltzen den eta ez bakarrik jende printzipala. Eta gainera itsusia dena ere azaltzen da eta ez bakarrik ederra omen dena.

Grimm anaien *ipuinak* kultur giro horren lekukoak dira. Grimm anaiak, orduko intelektualia denak bezala, frantsesez heziak izan ziren. Are gehiago, Grimm anaiak lanean administrazio napoleonikoarentzat egon ziren. Baina, hala ere, beren hizkuntzaren alde egin zuten, eta, Goethek bezala, alemaniera izan zen idazteko hautatu zuten hizkuntza. Aldarrikapen bat zen garai hartan, eta ez bakarrik aldarrikapen linguistikoa, kulturala ere bai. Herri alemaniarren ondare kulturala biltzera jo zuten, ahozkotasunetik jaso ekarpen guztiak eta gero itzuli edo ipuin bihurtu zituzten. Inork ba al daki egun Grimm anaien *ipuinak* Bigarren Mundu Gerraren ondoren debekatuta egon zirela Alemanian? Hau da, “demokratek”, amerikanoek, ingelesek, frantsesek, haiek denek, debekatu zituz-

ten Grimm anaien *haur ipuinak*, demokraziaren izenean. Zergatik? Izpiritu alemaniarren gordeleku zirelako, nonbait.

Eta honekin guztiarekin batera, Lord Byron daukagu, orduko *Childe Harolden ibilerak-en* idazlea. Ezin baita esplikatu, adibidez, europar ametsarako funtsezkoa zen Greziaren independentzia Lord Byronek emandako laguntzarik gabe.

Hau dena, kultura aldetik baldin badago, zer daukagu politika arloan garai horretan?

Bada, Prusiaren politikan birmoldaketa, besteak beste. Prusia bihurtu baitzen ikuspegi germaniarrean erreferentzia eta, aurrerantzean, “Ongi izatearen Estatuta” deituko zen horren aitzindaria. Izan ere, Austriaren gerrak inperio zahar bat desagertzea ekarri zuen eta, aldiz, sortzen ari zen beste potentzia bat, Prusia, lehenengo lerroan ezarri zuen.

Aipatutako 1813an sortu ziren, goian adierazi moduan, Paraguairen, Mexikoren edota Argentinaren independentzia, eta Napoleonen itzala desegin zuten Gasteiz eta Leipzigeke funtsezko borrorak, non frantziarren botere militarra txikitzen joan zen. Donostian gertatutakoa, beraz, horren ondorio horietako bat besterik ez zen izan. Bosnian ere mundu berri baten hazia botata zegoen.

Bitartean miseria gorria bizi zen herria Britania Handian kapitalismoaren hastapenetan.

Abagune honek guztiak zer ekarri zuen orduko zibilizaziora? Niretzat, lehen adierazi bezala, funtsezkoa izan den *Napoleon kodearen* ezarpena.

Napoleon kodea da, etengabe diot, Napoleonen garaipena izan zena: hiritar guztientzat erabilgarri izango den kode zibila non, testu bakar batean, gizarte ezberdintasunen aurka aginte juridikoak botere exekutiboetatik bereiziko diren eta Estatuak, aurretik Montesquieuk eskatutakoaren bidetik, egun duen egitura hartuko duen. Ez da aurrerantzean egongo, beraz, gizarte estamentalik, berdintasuna jendarteko harremanetarako oinarritzat hartua izango dela baizik.

Eta honek zer ekarriko du? Egunduen esaten den zuzenbide-estatua, bere ondorio guztiakin.

Orduan, askatasuna aldarri, “gontz garaian” sintesi bat egin zen aipatu kode zibil horretan, zuzenbide germaniarraren eta zuzenbide erromatarren artean. Funtsean, gizabanakoaren jabegoak eta askatasunak bilatzeko, kontzientziarena adibidez, edo, erlijioarena.

Erljioa zibila bihurtuko baita horren ondoren, eta Estatuak bereganatuko du ezkontzeko nahiz dibortziorako edota bizitza arautzeko funtsezkoak diren botereak, baita kontzientziak kontrolatzeko joera ere (handik etorri dira, ziuraski, “kondena politikoaren” betebeharrak edo “lurzoru etikoaren” kontsignak... gure garai laiko bezain zibilizatu honetan horrenbeste zabaldu izan direnak...).

Napoleonek berak, hain zuzen ere, inposatu zuen bere iritzia orduko jurista guztien kontra dibortzioaren eskubidea Estatuak eskura zezan, berak ere dibortziatu nahi zuelako baina, ondorioz, betirako jarrita utzi eta Estatu laikoaren orubea gerorako prestatu zuen batik bat.

Lamarcken *Zoologiaren filosofiak* ekarriko zuen protoeboluzioaren aldeko lehenengo urratsa. Britania Handian ekonomiaren krisialdiak ekarri zituen, esan bezala, ludismoa eta herri erresistentzia. Ludismoa, makinaren txikizioa zena (indar nuklearraren aurkako edo ekologiaren aldeko mugimenduen aitzindaria). Laplaceren *probabilitatearen teoriak*, noski, estatistikaren erabilera ekarri zuen. Estatistika, Estatuaren zientzia deana eta, azkenean, Estatu eredu berri bat sortu zen, Napoleonen *Kode Zibilarekin* batera, baita mundua antolatzeko ere, Estatu zibilaren arabera eredu hasiko da hedatzen.

NAPOLEONEN GARAITZA

Hori da Napoleonek berak bere testamenduan esaten zuena. Eta Napoleonek berak diktatu zuena:

“Ma vraie gloire n’est pas d’avoir gagné quarante batailles: Waterloo effacera le souvenir de tant de victoires. Ce que rien n’effacera, ce qui vivra éternellement, c’est mon Code Civil”.

Hau da, Napoleonek dio: nire funtsezko garai-pena, eta hori esan zigun hil aurretik Santa Elenan, nire funtsezko ekarpena *Kode Zibila* da. Horixe da iraun duena.

Ikuspegi horretatik aztertzen ari naiz, bada, Donostia-Travnik izenburuaren azpian, “Gontz ideologiaren” gizarte hedakuntza lantxo honetan. Orduko egoera kulturala eta ideologikoa zertan zetzan ulertzeko. Zeren aldaketa garai horretan moderniarene aztarnak ikusten ditugu, hau da, Ilustrazioa bera gontz sasoia baita, non Klasizismoa eta Erromantizismoa bertan batera ikusten ditugun.

Aurreko munduarekiko haustura bat badago hantxe, askatasuna aldarri baina kontuz, askatasun hau da liberalismo ekonomikoaren abiapuntua izango dena. Honek ekarriko ditu “ismo” guztiak, Surrealismoa, Modernismoa, Sinbolismoa.

Zergatik? Zeren eta dagoeneko ez dira artisauak egongo, hortik hasiko baitira sortzen artistak, eta aldarrikatu dira sorkuntzak bai eta, horrekin batera, intelektualaren irudia azalduko zaigu lehen aldiz kulturaren historian. Eta gizarte irudi horren erabileraren arabera ulertuko dugu, adibidez, Zolaren nahiz Dreyfusen eraginez agertuko den he-dabideen eraginepeko beste aferak.

ERROMANTIZISMOA

Hori guztia gertatzen da, esan dugun Gontz garaian, non Ilustrazioa, Klasizismoa eta Erromantizismoa bat eginik azaltzen zaizkigun.

Zer nolako ezaugarriak dauzka garai horrek?

Nekez azal daiteke, izan ere, izendaezinari deitzeko asmatu zuten erromantizismo hitza, kontagaitza denaren garaia baita. Boswellek esaten zion horri “romantisch”. Guk esaten diogu “erromantikoa” beste zentzu batean, baina garai horretan “kontaezinaren aroa” dena litzateke aipatu erromantizismoaren funtsezko esanahia. Nolabait esanda, Kantek “sublimea” esango lukeena.

Hau da, horrekin esan nahi zuten ordura arte ez ikusitakoa, berria zena. Izugarria.

Eta zer zen hori? Berrikuntzaren eta, batik bat, sorkuntzaren aldeko gizarte garrasia, kulturak moldatutakoa. Horregatik, hortik aurrera, artista izango da berrikuntzak ekarriko dituen, eta sortzaile bihurtuko dira artisau morroi izateari utziz.

Baina horri guztiari garbiago antzematen zaio berria denaren aldeko jarrerak puzten hasten direnean, birbaloratu egin baitzen berezia, bakana eta

singularra. Ondorioz, sorkuntzaren aldeko praktika berriak azaldu ziren, nitasunaren agerpen berriak. Hau da, hortik aurrera nia ikusiko dugu finkatzen, gizabanakotzearen abiapuntua ezarritz.

Aipatu gizabanakotzearen abiapuntu hura ez da joera ideologiko soil bat izango guztiz praktikoa den jite soziala baizik. Norbert Eliasek aipatzen du gizabanakotze prozedurak daudela eguneroko praktiketan. Adibidez, egun sagardotegietan jakiak eskuratzeko erabilitako modua, denek plater bere-tik tortilla, haragia eta gainerakoa jatea, bada, hori izan da Erdi Aroan eta Antzinako Erregimenean edo garai zaharretan erabilitako jateko sistema bera, denak plater beretik elikatu.

Zer da gizabanakotze sistema? Baxeraren bidez jaki zein pertsona bakoitza zerbitzatzea, adibidez. Kubiertoak, norberarenak izatea. Antzinako Erregimenean jende guztiak batera egiten zuen lo. Eta zer da gizabanakotze prozedura modernoa? Bada, adibidez, oheak, bakoitzak bere ohea izatea; jazkera, bakoitzak bere jantziak eta jazkera bereizia edukitzea.

Nitasunaren agerpena hor hasi zen azaltzen eta garatzen, Despotismo Ilustratuaren gainbeheran, hau da, terrore garaia desagertzen denean, iraultzaren ondoan.

Orain Modernia ostean baldin bagaude, Post-Modernia deitutakoan, garai hartan Moderniaurrean zeuden.

Eta Modernia-aurre deritzanean Goethe izan da erreferentzia, hasiera batean iraultzailea izan zena

baina, gero, iraultzaren kontra jarri zena. Kantek ez zuen hori egin, adibidez. Kant beti iraultzaren defendatzailea izan zen, Beethoven bezala, terrorea eta guzti onartuz, gizartearen garapenean mundu hobe baten ibilbidean ezinbesteko urratsa zelako.

Jarrera honek zer ekarri zuen, besteak beste? Nazionalismoen gorakada, esaterako.

Hau da, Europan zein kolonietan, Donostian zein Travniken jendea hasi zen konturatzen bere kulturaren araberako naziokoa zela eta ez, Antzinaako Erregimenean bezala, agintari kanpotarren morroia edo, Estatu berriaren arabera, norberaren izaera baztertzen zuen “kultur zibil” uniformizatzaillearen menpekoa. Orduan, nazionalismoa eta independentzia bideak azaltzen eta zabaltzen hasi ziren.

NAZIOEN ALDARRI BUKAEZINA

Bide horretatik, amaigabetasunaren estimazioa ere hedatzen hasi zen, etengabeko hobekuntza Kanten ikuspuntutik. Sorkuntzaren lurrazalean egile intelektualen irudiak hor ditu sustraiak. Egun Kudeaketa Elkarateek planteatzen dituzten egile-eskubideen defentsa eta ondoriozko eztabaidak garai hartan hasi ziren ematen.

Diderot eta Turgoten arteko tirabirak horri buruz izan ziren edota orduko Frantziako diputatuaren artekoa, non bat, Condorcet, izan zen horren kontra azalduko zena. Horretan, Fichte izan zen erabakitzailea.

Handik aurrera intelektual pertsona berri bat izango da. Zein dugu lehenengo intelektualetako bat? Norbert Eliasek egindako ikerketaren arabera, Mozart izan zen. Beno, Mozart Gontz garaiaren aurrekoa da, 1756-1791 bitartekoa, baina, Diderot bezala, beste intelektual “sortzaile” horietako bat izan zen, edo Rousseau bera ere... eta Entziklopedia egitasmoa “intelektual irudi kolektibo” horietako bat izan zela ez dago dudarik.

Horiek guztiak ez dira jadanik morroiak izango, ez dira, lehen bezala, apezpikuen menpekoak

edo jauntxoan bidez janten zutenak. Ez, aitzitik, beren lanetik kobratzen dutenak dira. Horregatik aldarrikatu zuten egile-eskubidearen beharra aske izateko.

Eta erreferentzia kultural berri hauek herri kontzientzia bihurtuko dira. Estatu berria finkatzen den heinean, Zolarekin agertuko da hori. Émile Zolaren bizitzaren bidez, Dreyfusen pasarteetan, ikusiko dugu lehen aldia intelektualek aurre egin ziotela Estatuari eta famatu egin zuten jarrera kritiko hori. Hortik aurrera, XIX. mendean zehar, intelektualen papera gorpuztuz joan delako.

INTELEKTUALEN EGIA

Ordukoa da, baita ere, azaltzen zaigun egiaren eraikuntza berria, propaganda modernoaren hastapena izango dena. Hau guztia kantiarra da, hark erakutsi baitzigun ez zer pentsatu behar dugun, nola pentsatu behar dugun baizik, egiak nola eraiki egiten diren jakiteko, hain zuzen.

Beragatik dakigu funtsezkoa: Egiak eraiki egiten direla, ezin da esan egirik ez dagoenik, baina egiak beti eraikiak izaten direla ez dago dudarik. Zeren arabera eraiki, ordea?

Garai hartan hasten zen propaganda politikoa horretarako erabiltzen, gizarte egiak eraikitzeko hain justu, eta maiz ikusi izan ditugun Napoleonen irudietan horixe ikusten zen: propaganda politikoa. Adibidez, Enperadorearen irudia San Bernardo Alpeetan Frantziatik Italiara pasatzen, jakina da, gezur hutsa dela, hor azaltzen baita Napoleon zaldi gainean nahiz eta ez zuen erabili zaldia, mandoa baizik. Baina bistan da, ezin zen horrela agertu, ez baitzen batere propagandistikoa Napoleon mando baten gainean jartzea, noski. Orduan, zaldia erabili zuten historiarako geratu den irudia osatzeko eta inperioaren irudi propagandistiko egia bihurtzeko.

Orduan, egiaren eraikuntza berria, propaganda politiko modernoaren hastapena gontz garai honetan hasten dela garbi dagoela esango nuke.

Halaber, zientzia eta letren arteko haustura eskolastikoaren birformulazio utilitarista gauzatu zen sasoi bertsuan. Hau da, Newtonen ondorengo gogamena. Baita diziplina instituzionala eta zigor pedagogikoaren erabilera ere. Bon, egia esanda, ni ari naiz denbora guztian kontzeptu potoloak erabiltzen baina, espero dut, bukaerara iristearekin batera dena ulertua geratuko dela, Bitartean, azalpenarekin segitzea izango da egokiena.

Denbora kudeatzeko garrantzia hau da, progre-soa eta betiereko aurrerakuntzaren premia aztertzen ari garen garai honi zor diogu. Denbora aurrera-begira bat bihurtzen baita. Denbora klasikoa betiereko itzulera zena, denbora greko-latinoa, denbora zaharra gaindituta geratu zen.

Modernitatearekin batera, berriz, denbora aurrera jotzeko zerbait bihurtzen da eta, ondorioz, hura kudeatu beharra dago garai hartatik.

Frantsesa boterearen mintzaira bihurtu zen, lehen esan bezala; Gohetek horren aurrean oldartuta, alemaniera hautatu zuen idazteko eta horrela, nolabait, Jose Azurmendik esango lukeen bezala, alemaniar literatur nazional unibertsala fundatu zuen.

Kanten kasua ere antzekoa da, gogoratu 1804an hil zela eta, hori zela eta, heriotzaren bigarren mendeurrena ospatzeko 2004an UPVrekin batera ikastaro bat antolatu genuen. Sasoi hartan, L. Mess

zegoen errektoreordetzan. Orduan, harengana jo nuen esanez:

– “Bueno, antolatu dugu Kanti buruz kurtso bat euskaraz. Noski, Kant euskaraz zail xamarra da”, eta orduan Messek, bera alemana izanik, baita euskalduna ere, esan zidan:

– “Bai bai, Kant euskaraz oso zaila da, baina alemanez izugarri zaila”.

Zeren Kanten alemaniera Kantek asmatu zuen, ez baitzuen inork filosofiaz idatzi Kantek baino lehen, zeren eta akademiako jendeak frantsesez egiten zuen eta, Kanten idazkien ondorioa den kosmopolitismo kontzeptua (berriro, polis, hau da, gizaki unibertsalaren moral berria, denontzat berdina) bertako hizkuntzaz idatziz plazaratu zuen. Horra hor paradoxa eta, halaber, moderniarene ardatza.

Gontz garaian gauden garai honetaz aritzekoan, ordea, gauza inportante bat azpimarratu behar dut. Usadio bihurtu izan da honezkero kontzeptu bila *wikipediara* jotzea, lehen entziklopedietara edota manueletara kontsulta egitera joaten zen moduan. Eta, normalean, teoria klasiko guztietan Erromantizismoa Ilustrazioaren kontrakoa dela aurkitu ohi da bertan, edo Erromantizismoa Arrazionalismoaren kontrakoa dela, nolabaiteko erreakzio bat, beti erabili ohi den penduluaren lege horren arabera.

Nire iritziz, ordea, ez da hori. Erromantizismoa Ilustrazio alemana da, ez da Ilustrazioaren kontrakoa. Goethe, Herder, Humboldt... horiek

guztiak ilustratuak izan dira baina alemanez idatziz eta kultura alemanetik elikatu dituzte beren hausnarketak.

Honek esan nahi du Ilustrazioaren garapenean bide ezberdinak ere badaudela?

Bai, usadioz, horrela aurkeztu izan ohi da: Alde batetik, Erromantizismoa, eta berarekin lotzen duten Nazionalismoa, eta bestetik, Ilustrazioa, non Estatu “neutro” omen dagoen, gizaki guztientzako bermen oinarria.

Halere, aipatu bereizketa hori sinpleegia da.

Ez dut uste dikotomia horrek balio duenik. Aitzitik, Erromantizismoa Ilustrazioa da historikoki garai horretan garatua baina alemanez ulertuta, eta hizkuntzarena ez da anekdota hutsa, jakina.

Jose Azurmendik honi buruz egindako lanak hor daude baieztatzen ari naizena azpimarratzeko, eta hark ederki ezagutzen du alemaniar kultura.

Ez dugu, beraz, Ilustrazioa argiaren eta itzalaren arteko borroka gisa soilik ulertu behar, arrunkeriaren aurrean berariazkoaren edo berezkoaren balioztatzekeo jarrera intelektual gisa baizik.

Honen arabera, gizabanakotze eta herri izaera ezberdinak balioztatu ziren arlo guztietan. Baita politikoki ere. Gurean eta orduan, esaterako, zer proposatzen zuen Garatek? Iñigo Bolinagak edo Mixel Duhartek erakutsi bezala, euskal herri izaera politikoki erabiltzea eta balio bihurtzea, hain zuzen ere.

HERRIEN EGIA

Sasoi hartan, herrien ekoizpenen ikerketagai bihurtzen hasi zen eta, Napoleonen eraginez, Europa osora zabaltzea ere erdietsi zen. Hortxe dugu Ivo Andritxen *Travnikeko kronikak* liburuan irakurtzen dena, besteak beste, kontsulen lana (dirrela Napoleonen alde, Austria-Hungariaren alde edo Sultan otomanoaren alde...) bertako kulturen berri ematea izan zela, funtsean. Informatu behar izaten zuten zer egiten zuten bosniakoek, zer egiten zuten serbiarrek edo kroatek zer egiten zuten toki hartan.

Materialismoaren kontrako garaia zen, Idealismoen aroa eta askatasunaren bultzatzailea.

Idealismoa diot, eta hori dela eta bueltatu nahi dut egileen eskubideen debate horretara, non Diderot, Turgot eta Condorceten artean debatea planteatu zen. Erregimen berriak proposatzen zuen kontsigna hauxe zen: bukatu behar dugu pribilegio guztiekin. Eta pribilegio haien artean inpresoreen erret baimena zegoen, idazleen pribilegioa omen zena. Zeren ideiak, berez, ez dira inorenak eta, ondorioz, ez zaio inori ezer ordaindu behar ideiak edukitzeagatik. Hori zen Condorcetek edo Tur-

gotek planteatzen zutena. Eta Diderotek, berriz, esaten zuen: ez, ez, egileari noski ordaindu egin behar zaiola, zeren ideiak gero azaldu behar dira eta azalpena da, hain zuzen ere sintesi bat, ideia-aren eta esateko moduen artean egiten dena. Eta hori norberari dagokio eta horri zor zaio. Fichte erromantiko alemaniarra sartu zen polemika horren erdian Dideroten alde eta, esan daiteke, hortik aurrera, egile eskubideak eta intelektualaren papera hasi zela onartzen.

Benoa, zein garai da hau, beraz? Erromantizismoa, roman edo eleberrien garaia, hor hasten baitira eleberri modernoak. Sthendal sindromearen aroa, jakina denez, Sthendal Henri Bayle izeneko idazlea zen, oso Napoleonzalea eta erromantizismoaren aitzindaria Europan. Grenoblen jaio zen, baina, handik irtenda, asko ibili zen Italian eta bertan ikusitako edertasunengatik zorabiatu egiten zen. Oso sentibera omen zen, nonbait, eta horregatik deitu izan zaio haren izenarekin portaera horri, bidaiarien sindromeari.

Hau da, gauza berrien aurrean konortea galtzea edo zorabioak izatea. Horrela zen garai hartako giro intelektuala.

Giro kulturalean, berriz, ikusten duguna da musika nazional erromantikoak sortzen direla, noski, Beethoven, Paganini, Rossini, Schubert, Berlioz, Strauss, Mendelson, Chopin, Shumann, Liszt, Verdi, Wagner. Ezin izango genuke ulertu garai hori eta geroko Italiaren independentzia Verdi gabe, adibidez. Eta bueno, margolaritza arloan, esaterako, ar-

gilunak izan dira ezaugarri Goya, Gros, Delacroix, Vernet, edo Prud'honengan.

Hemen, modu berantiarragoan, Bringas, Barroeta, Lekuona, Zamacois, Guridi...

NAZIOAREN EGIA

Mende luzea izan zen XIX. mendea, Eric Hobsbawmek hala deitu zuena.

Mende motzean, berriz, XX. mende horretan XIX. nean agertu eta aipatu “ismo” hauek guztiak garatuz joan ziren. Erromantizismotik Anarkismora eta Impresionismotik Sozialismora. Intelektualekin batera, esan beharra dago, alfabetatze tasen gorakada ere nabarmena izan zela, tokian tokiko hizkuntzetan garatzen hasten da latina zokoratuz. Eta bide batez, frantsesaren alde gehien batean. Horrekin batera, Progresoaren ideia berria hasi zen hedatzen. Hau da, Estatuak bultzatu behar duela progresoa, baina Estatuak, ordea, nork eraiki behar du? Herderen ikuspuntutik Nazioak eraiki behar du Estatuak. Frantzian erdua guztiz kontrakoa izan zen, Estatuak bultzatzen zuen Nazioa, Estatuak eraikitzen zuen Nazio frantsesa, lehen existitzen ez zena.

Hor zegoen debate politikoa, entziklopedistak, Rousseau eta Diderot. Ohiko zuzenbidearen partez subiranotasun berri bat planteatzen zuten. Hau da, zein da subiranoa? Ez monarka, herria baizik. Orduan, herria zein da? Ezberdintasunen batura.

Thiry d’Holbachek, Diderot eta Rousseauarekin ibilitako markes germano-frantsesak planteatzen zuen ezberdintasunak ez zirela txarrak, laguntzeko ziria, herria sortzeko eta zoriona erdiesteko baizik.

Ildo horretatik, gomendio bat irakurketarako, oso ederra baita *A Wicked Company* izeneko liburua (Basic Books. N, York 2010); jende hau arriskugarria zen, eta hori da Philipp Bolmek argitaratu duen liburuan erakusten diguna. Hau da, pentsamendu horiek berriak ziren, arriskugarriak ziren baina ekarri zuten gure gaurko kultura: Zuzenbide Naturala Jainkoarengandik jendartera pasa zen, Giza-Eskubideen oinarria sortu zen (Beccaria kontea izan zen goian aipatu intelektualen gertuko adiskidea), baina Giza-Eskubideen planteamendu horiek hasieran gizonen eskubideak ziren bakarrik nahiz eta Mm.Geofrin kontra azaldu, eta beno, hor dauzkagu ondoriozko beste erreferentzia batzuk, erreferentzia juridikoak, *Jentilen zuzenbidea*, gero *Herri berrien aurkikuntza* deitutako hori etab.

Hirugarren estatua, hau da, herria jadanik ez da toki fisiko bat izango, sinbolo bihurtzen dela baizik, eta sinbolo subirano bihurtzen dela, gainera.

Ez da, Sieyesek aipatutako hirugarren maila hori, ez, hirugarren estatua, dena izango da. Dena horrekin totalitarismoaren aurrekaria ari zen azaltzen. Hau da, amets edo amesgaizto napoleondarra gero amesgaizto hitleriarra izango da, Europa batuarena, totalitarismoa, herria da dena. Herria Nazio bihurtzearen ondorioz gerra denon afera bilakatu zen, hau da, lehen gerra erregeen eta beren militarren afera bazen, militarrek profesionalak zi-

relako, Napoleon gudara doanean, Nazioaren ize-
nean joan badoa, progresoa zabaltzeko nazio ara-
zoa bihurtu baitzen gerra.

LEGEAREN EGIA

Robespierrek planteatu zuen bezala, hor bada-go beste debate funtsezko bat 1793ko Konstituzio frantziarrean, inoiz ere indarrean jarri ez zen konstituzio interesgarri bat, eta hor dago Danton eta Robespierrearen arteko debatea. Robespierrentzat Aberria da erabili beharreko hitza; Dantonentzat, berriz, Nazioa.

Robespierrentzat Aberri hori unibertsa den bitartean, Dantonentzat, aldiz, Nazioa Frantzia da. Bitxia da biak gillotinatu zituztela eta emakume euskaldun batengatik, hain zuzen ere, Madame Cabarrús, Baionakoarengatik.

Teresa Cabarrúsen historia, beno, ezin da hau guztia ulertu ere genero ikuspegirik gabe, noski. Gogoratu beharke genuke Madame de Staëlek, Madame Geofrinek, Madame Cabarrúsek... emakume haiek denak, sekulako eragina izan zutela Iraultzaren garaian.

Diotenez, Teresa Cabarrús zela medio akabatu zuten Robespierre bera.

Teresa, Dantonen azken emaztea izan zen Dantoni Robespierrek burua moztu zionean baita Cabarrúsi berari ere bai, baina, Teresa herriak maite

zuela esaten dutenez, haren kondenak haserrea piztu zuen “ustelezina”ren aurka eta, orduan, hori zela bide, atrebitu omen ziren arerio politikoak, herri asladatuaren laguntzaz, Robespierreren kontra jotzeko.

Frantziako Konstituzio hori, goian aipatu dudana, 1793koa, horrek azpimarratzen zuen funtsezkoa den gauza bat, erresistentziarako eskubidea, hau da, legea ez onartzeko aukera, lege hori herriaren kontra baldin badoa. Horren abiapuntu ideologikoa Rousseauren teoriak izan zirelarik, Gizarte Hitzarmenarena, “du contrat social” famatu hura, hain justu.

Baina, jakina, hortik etorriko da zuzenbidearen nagusitasuna gizarte zibilaren aurrean, hau da, Konstituzioaren arabera planteatutako legea herriaren ondarea zela. Robespierrek esaten zuen langileek ez zutela Aberririk Erregimen Zaharrear, Aberria erregearena baitzen. Legerik ere ez zegoela Iraultza aurretik, dena erregeak erabakitzen zuelako. Legea herriaren ondarea baita, berez; legea herriak eraikitzen duelako eta herria defendatzen duelako, legedia herri ondarea da. Ordutik aurrera, zuzenbide estatua izango da herri estatua, legearen estatua.

ASKATASUNA BETEBEHARRA

Beraz, herritarra edo hiritarra izango da zuzenbide estatu horren abiapuntua. Baina askatasuna, kontuz, betekizun bihurtuko da. Horregatik terrore garaian Robespierren eta Saint-Justen predikuak, hau da, zabaldu behar da askatasuna eta legeak maite ez dituztenen kontra ere, haiek ere askatu behar direlako. Hau da, joan behar zen Errusiako Erregimen Zaharren kontra, joan behar zen Espainiako Erregimen Zaharren kontra etab; betekizun bat dagoelako progresoaren bidean jendea askatzeko, beraiek nahi ez badute ere.

Eta hori izan zen Napoleonen soldaduak asaldatuko zituena Errusian. Napoleon sartu zenean Moskun, eta hori kontatzen da Tolstoiren *Gerra eta bakea* liburuan, Napoleon Moskun sartu zen eta borroka irabazi zuen. Bertako jende printzipalek, ondareen jabeek, Napoleonekin bat egiten zuten. Baina herria, aldiz, haren kontra oldartu zen, Madrilen bezala, eta horrela gauzatu zuen kateen gorazarrea, “vivan las cadenas” ohikatuz. Erregimen Zaharra hirugarren estatuak defendatzen zuen, morroiek beraiek defendatu zuten Errusian eta Espainian.

Baina frantsesentzat, Robespierrentzat, Saint-Justentzat, Napoleonentzat, haiek guztiak progresoen aldeko inbasioak izan ziren. Ordukoa izan zen Kanten *Betiereko bakea* izeneko proposamena, eta haien aipatu jarrera horretan oinarritu zen. Goian esan bezala, legea da beti hobetu daitekeen zerbait baina herriaren alde dagoena eta, beraz, betekizun bat.

Ildo horretatik, filosofia politiko berria Gizarte Hitzarmena izango da, gizabanakoa erkidegoarekin lotzen duen legea: agindu kategorikoa. Horixe da Rousseaugandik datorrena, sozietatea sortzen da hor, non denak sozio bihurtzen diren. Eta horren arabera, filosofia politiko berri horretan moral eta kontzientzia unibertsalak agertu dira, erlijioz kanpoko subjektu politikoak, hori da Kantek *Arrazoien praktikoaren kritikan* azaltzen duena.

AGINDU KATEGORIKOA

Zeren eta egungo Europako modernitateak oinarri kantiarrak baititu. Kanten filosofiak duen eragina, bada, filosofo garaikide gehienek aitortzen dute. Gaurko pentsamenduaren erreferentzia diren Habermas, Vattimo edo Lyotard-en ideien jatorriak Kantek duela berrehun urte proposatutakoan du iturburua. Areago, egun hainbeste hitz egiten den “moderniaren haustura”, jatorriz, Kanten ilustrazioan oinarriturik dago.

Kanti buruz aritzerakoan beste galdera bat pausatatu behara dago: ba al du egun Kanten filosofiak aspaldian izan zuen garrantzi bera?

Eskolan oraindik ere filosofia irakasten da, hemen zein Bosnian, eta Kant filosofo nagusien zereenda labur horretan agertzen zaigu. Ikasleek Kantek Ilustrazioari buruz idatzitako testua irakurtzen dute. Baina kontua ez da Kantek Ilustrazioari buruz esan zituenek interes historikoa ote duten, inola ere ez baitago zalantzan Kanten filosofiak izugarritzko eragina izan duela, baizik eta ea Kanten filosofia, Ilustrazioaren mezua beraz, egun ere esanguratsua den, errealitatea ulertzen eta erabakiak hartzen laguntzen digun. Horretan, etikaren

oinarri irmoa ezarri ondoren, politikaren arloan ere badu zer esanik: ordezkaritza sistema batean eta botere banaketan oin hartzen duen errepublikaren alde egiten zuelako, horrela lortuko baita berdintasuna eta askatasuna batzea. Hori zuzenbide pribatua, publikoa eta nazioartekoa kontuan hartzen dituen egitura batean gauzatu ahal izango da, gizarte hitzarmena izanik haren kontzeptu nagusia. Era bertsuan, gaurkotasun handia du nazioarteko egoerari buruz egindako gogoetan garatutako ideiak: kosmopolitismoa. Esan daiteke horren bidez Kantek bakearen baldintzak bilatu nahi zituela, eta horregatik armada egonkorrak eta gastu militarra kritikatzeko zituen; baita kolonialismoa ere. Eta horrek balio du egungo modernitatearen krisialdia aztertzeke eta inperialismoa kolokan jartzeko.

Modernitatea aurrerakuntzarekin identifikatu ohi baita, hau da, hazkuntza ekonomikoa, arrazioaren erabilera (politikan edo erlijioan)... edo beste modu batez adierazia: trenaren bidezko komunikabideen birmoldaketa, makinaren erabilera produktio prozesuan, merkatua eta moneta nazioaren baitan kudeatzea, armada berriaren antolaketa etab... Hortaz, gizaki berria sortzea eta horretarako hezkuntzari buruz ikuspegi berria formulatzea izan zen modernitatea gauzatzen joateko ezinbestekoa eta egun, berriz, krisialdian bezainbeste birmoldaketa bidean dagoena.

Kant gizonaren misantropia eta nartzisismo hipokondriakoarekin batera, utilitarismoa dugu haren nortasunaren adierazlerik nabarmenena. Eta, haren aburuz, jakintzak balio duenez, hark

asmaturiko gizaki berria sortzeko irakaskuntzaren erabilera nahitaezkoa suertatuko zaio.

Kant lehenbizikoa izan zen gizaki berria funtsezkoa dela esaten eta azpimarratzen.

Egun, ordea, aurrerakuntzaren eredia bera da kolokan dagoena eta Kantek hori ulertzen lagundu dezake.

Mundua behar bezala ez dabilenez, nahiz eta munduan diren etika desberdinek dioten *ongia* dela abiapuntua, errealitatea da *gaizkia* dugula munduan zehar barreiatuen dagoena, eta denok pairatzen dugun *gaizkiari* mugak jartzeko beharra badagoela. Baina nola galgatu *gaizkia*? Eta honen guztiaren aurrean, zein behar du izan intelektualen jarrerak?.

Egungo mundua, zalantza izpirik gabe, ikuskizuna dugu, Kanten garaian izan zitekeena ehun aldiz biderkaturik. Eta ikuskizunak ikusleak behar ditu. Ikuslea izateari utzi gabe, Kantek proposamena eskaini zuen. Gizateriari zegokion onura ikusi zuen iraultzan, eta izaera morala, garaian garaiko protagonistentzat izateaz gain, gizateria osoaren progresorako aurrerapausoa ere bazela. Unean uneko arrakasta edo porrotaren gainetik, moral berriaren ekarpenak aurrera egiten zuela aurreikusi zuen.

Ildo beretik, “Sapere aude” (“ausart zaitez jakitera”) leloa berari zor diogu. Lehen bezala orain ere, ikusle soilaren eta inplikatuaren artean erabaki beharra dago kritikoa izateko.

Honek esan nahi du aurrerakuntzak topera jo duela eta garapenak nahiz eraikuntza politiko berriek, esate baterako, ez dutela zentzurik?

Kanten arima ilustratu baten azpian burgesia jaioberrian sortutako dikotomiak topatzen ditugu: pribatua eta publikoa, subjektua eta objektua, teoria eta praktika, metafisika eta zientzia, barruko lege morala eta kanpoko zero naturala. Eta era beran, estatu guztiek oinarritzko eskubideak bermatuko dituen konstituzio errepublikanoa edukitzearen premia (gaur Europaren eraikuntzan agertzen ari den arazo bera eta Napoleonen zein Hitlerren ametsa).

Alde honetatik, politika ororen helburuak askatasunaren, berdintasunaren eta herritargo-eskubi-dearen defentsa izan behar ditu, eta ez ongizate materialarena soilik. Kantek, hortaz, despotismo ilustratuaren aurka agertzeaz gain, ordezkapen sisteman eta botereen arteko bereizketan oinarritzen den erregimen errepublikazalea defendatu izan du. Izan ere, haren iritziz, bi konstituzio eman daitezke: *despotikoa*, borondate politikoa Gobernuaren borondateaz nahasten duena (dena herriarentzat, baina herririk gabe), eta konstituzio *errepublikazalea*, jatorritzko kontratuarekin bat datorrena.

Azken hau da Kantentzat gobernu legitimoa, bertan botereen arteko banaketa ematen delako, eta herritarren askatasuneko eta herritarren arteko berdintasuneko printzipioetan oinarritzen delako.

Honek suposatzen du Kanten irakurketa berria. Filosofia kantiarra betiketzeak, pentsalari alemaniarrek azalduriko planteamenduaren aurka, ez du ezer ematen. Frankfurteko Eskolako kideek eta postmodernitateko pentsalariak argi eta garbi erakutsi dituzte Historian zehar arrazoiak sorturiko munstroak. Ilustrazioaren egitasmoak, jai

zen une berean, porrot egin zuen, baina egun horretaz aritzeak gure egungo abagunea birpentsatzeko balio du, Donostian nahiz Travniken. Horregatik saiakera honetan berreskuratu nahi izan dudan Immanuel Kanten irudia Ilustrazioaz aritzerakoan, bera izandakoa eta berak esandakoak gure gizartea ere amiltzear dagoenean ulertzeko lagunduko gaituelakoan.

Garai hartakoa da, esan bezala, irakaskuntza nazionalaren antolaketa, ilustrazio kantiar kosmopolita honen ondorioa (Elizaren interesen aurka), nahiz eta, Mc Luhanek zioena parafraseatuz, kosmopaleto bihurtu.

Hezkuntza Sistema Nazionalarekin, Armadekin batera, eskola eta administrazioa hasi zen eratzen eta hedatzen armada napoleonikoa eredu zutelarik. Horrela sortu zen hierarkiaz antolatutako eskola sistema modernoa, biztanleria osoa kontrolatzeko gai, betebeharra eskubide unibertsala zen hein berean, diziplinarioa eta gizartearen aurrean nabarmentzeko titulu berriak emango dituen. Ildo horretatik, Kultura zibila Estatua gizarteratzen hasi zen nazio hezkuntzaren eta administrazioaren bidez, horretarako, noski, hizkuntza eta kultura jakin bat hautatuz. Frantziak bretoiera edo okzitaniera hartu ez zuen moduan ez zuen Espainiako Erresumak euskara edota katalanera hartu hizkuntza bat eta bakarra baizik. Frantzian frantsesa izango dena eta Espainian espainiera. Etnia menperatzailearen kultura hizkuntza menperatzaile bilakatuko da.

Nazioaren estatuak curricularen egokitzapenak behar zituenez, hezkuntzak gizarte trinkotzea eta

zentzu kode jakinak lehenetsiko ditu, etnia menperatzailearena kultura konpartitutako jakin bat bihurtuz (partekatzeke gai bakarra).

Hizkuntza eta kultura jakinak hobetsiz nazio hezkuntzak bere neurriko gizakiak ekoitziko ditu. Horra hor A.D. Swaan irakasle juduak bere garaian azaldutakoa (1991, “El curriculum elemental como código nacional de comunicación”, in *Revista de Educación*, núm. 295, non argi erakusten zaigun hezkuntza nazio hizkuntza jakin bat hautatzeaz gain, kultura aukeratua ere zabaltzen duen “denen onerako”).

Erljioaren partez, beraz, Zuzenbide Estatu agintzen hasi zen eta Napoleonen Kodigoaren bidez akabo ez obeditzeko eskubide iraultzailea. Zuzenbide Estatu modernoan ezin izango da “intsu-misioa” onartu. Arauaren nagusitasunak kontrola, hierarkia eta sumisioa ekarri zuen.

Robespierre moldatu honen arabera, Legearen inperioa izan zen Napoleonen gerren aitzakia, “Napoleon kodigoa” zabaltzea, bada, haren garaipena.

Politika Zuzenbidearen gainetik egotetik, us-tez, Zuzenbidea (gizarte ezberdintasunak estaltzen zituen berdintasun juridiko formala bezain faltsua eta okerra: “status quo”aren alde eusteko betiere..). Politikari gailendu zitzaion.

Eta ondorioz, Zuzenbidea (ez eskubideak) Estatuaren oinarri bihurtu zen “Napoleon kodigoa”ren bidez, hain zuzen. Horra hor horri buruz E. Pissier-Koucneren, M. Foucaulten edo G. Deleuzeren salaketak (1978 Châtelet, F. eta Clusters, H;

Moureu, P.F, Korinman, M; Pisier-Kouchner, E. *Histoire des ideologies*. Hachette).

Kasu, Zuzenbide Estatua orduko “asmakizuna” da hausnarketa politiko iraultzailea desbideratzeko eta, jakina, gaurko estatuak garai horretako emaitza dira.

Halaber, Konkistaren ideologia orduan hasi zen esanahi modernoaz zabaltzen: besteen hobebetaz egindako inbasioak ez dira atzo goizekoak, baina sasoi haietan zilegitasun “progresista” hartuko dute.

Eta, horretarako, “Basatiei” buruzko arreta hasi zen pizten. Rousseau, bistan da, ez da Montaigne; azken honek jende basa aztertuko du kultur errelatibismoaz aritu ahal izateko baina Ginebrakoak bere Filosofia Politikoa garatzeko aitzakiatzat erabiliko du. Diderot, jakina, ez da Ronsard. Entziklopediagileak bere moralak azaltzeko aintzakotzat hartuko du Basatia, Ronsardek, berriz, nolabaiteko “etnologia” egin ahal izateko.

Zeren eta Basatia ibiltaria zela esaten zuten, ez zuela jabego pribaturik onartzen, eta, beraz, gizaki zibilizatuak jabego pribatua duen “hiritar” sedentarioa behar du izan.

Eta horrekin, Basatiez hitz egiten ari ziren orduko intelektualak “gizaki berriak” hausnartzeko, konkista justifikatzeko eta haien ondareez jabetzeko.

Horrela hasi zen justifikatzen, era bertsuan, Nazioaren lurraldetasunaren zaintza eta mugak hasi ziren zehazten eta ahalik eta zurrunen markatzen.

Ondorioz, Geografia bera, zientzia militar izatetik Estatuaren eta zibilen jakintza izatera pasatu zen, baita Estatistika ere (estatu berrien zientzia izango dena).

Herritartasun politikak kontrol eta ideologia estrategia bihurtu ziren. Horrela, frantses interesen alde borrokatutakoei naziolatitaea eman zitzaien (*“frantses herritar egin ziren askatasunaren alde aritutako filosofo nahiz soldadu”* zioen Anacharsis Clottsen proposamenak).

Egungo inperialismoaren ardatzek garai horretan dute hazia... (nazia ?;) bai eta haien aurkako erresistentziak ere, independentzia nazionalak aldarri.

Baina horretan, gurean behintzat, bi jarrera ezberdin azaldu ziren (orain arte iraun dutenak):

Alde batetik, Inperialismoaren birmoldaketaren ondorio politikoei egokitutakoak: 1810eko “Bizkaya” nahiz “Nafarroa” gobernu napoleonikoak (eta Garat “alternatiba” deritzana) edota “kolarboak” (Ortuño Agirre, Urbina, Zubia, Mazarredo etab).

Eta bestetik, berezko independentziaren aldeko ekimen nahiz ideologiak: Matxino armatuak (Zumalakarregi eta enparauak, E. Hobsbawnek 2001ean “bandido sozialak” bataiatuko dituenak) baita elizgizonen predikua ere (Uribarri, Mogel, Astarloa edota frantziskotarrak, J. Agirreazkuena-gak 2013an ikertutakoak).

TOKIAN TOKIKO KULTUR GARAPENA UNIBERTSALISMOAREN AURREAN

Euskal kulturaren, jakina, gerratearen bidez, urruti ikusten ziren mamuak etxeratu egin ziren eta, ondorioz, halakoak izan ziren Frantziako Iraultzareneraginak gurean:

XVIII. mendearen azkenera arte ez da apenas euskarazko lanik kaleratuko Euskal Herriko Hegoaldean. Hasierako Manuel Larramendiren itzalpean (1690-1766) idazten aritu ziren Agustin Kardaberaz (1703-1770) eta Sebastian Mendiburu (1708-1782), ez ziren mendea bukatu arte ezagutu.

Bestalde, Jesuiten kanporatzeak 1767an Kardaberaz eta Mendiburu Bolonia aldera eramantzen zituen. Halaber, Madrilgo ministroa izan zen Arandako konteak oztupoak jarri zizkien gaztelaniaz ez zeuden izkribuak argitaratu ahal izateko. Hori dela eta Juan Antonio Ubillosen Kristau doktrina (1785) izan daiteke salbuespen bakarra.

Hasteko, Konbentzio-gerran (1793-1794) Hego Euskal Herriko lurralde gehienetan soldadu kanpotarrak sartu ziren eta hainbat hilabetetan gerratu ziren. Ondorioz, Iparraldean, hainbat hiritar etorri zen Hegoaldera ihesik, elizgizonak bereziki.

Horien artean zenbait euskal idazle: besteak beste, Martin Duhalde (1733-1804), Andre Baratziart (1738-1826), Salbat Monho (1749-1821) eta Jean Robin (1738-1821). Haiek guztiak, Oiartzun eta Hernani inguruan kokatu ziren.

Bestalde, Pedro Antonio Añibarro (1748-1830) idazle bizkaitarra Zarauzko komentuan atxilotu eta Baionara eraman zuten preso beste bi fraideekin batera.

Juan Bautista Agirre (1742-1823) Asteasukoko erretore eta idazlea, Oñatin babestu zen.

Napoleonen inbasioa eta geroago (1808-1813) Espainiako erreinu osoa bereganatu zuten enperadorearen tropek lehen urteetan, azkenengoan dena galtzeko. Gizasemeen komentuak itxi egin ziren eta erlijiosoak sakabanatu; Arantzazuko fraide batzuk ere Frantziako iparralderaino eraman zituzten deportatuta. Bartolome Madariaga (1768-1835) idazle karmeldar bizkaitarra Etxeberrin atxilotu eta Bilbora eraman zuten preso, 1809an. Aitortzak entzutea eta sermoiak egitea debekatu zioten.

Jose Kruz Etxeberria (1773-1853) misiolari frantziskotarra Frantziara deportatu zuten, pulpitan Jose Bonaparte erregearen aldeko menpekotasuna aldarrikatu nahi izan ez zuelako. Juan Bautista Agirre, idazlea eta 1800-1815 bitartean Gipuzkoako Artzapezgo Nagusiko diputatu nagusia zena 1813 famatuan frantsesek balaz zauritu zuten belaunean. Harrezkero elbarrituta gelditu zen.

Egoera berri honek euskaraz idatzitako literaturan eragin handia izan zuen. Kanpotik etorri

zitzaien erauntsiari nolabait aurre egin nahian, elizgizonek kontraerasoa antolatzekeo premia larria nabaritzen zuten, bai Eliza barruan bai eta elizatik kanpora ere idazkien bitartez.

Garai berezia da hau euskararentzat: batetik, aurreko mendeetako apologisten ildoari jarraituz, Pablo Pedro Astarloak, Juan Antonio Mogelek eta abarrek euskarari buruzko apologiak eta ikerketak argitaratuko dituzte; bestetik, Wilhelm von Humboldt jakintsu prusiarra bi aldiz etorriko da Euskal Herrira, 1799an eta 180lean. Bigarren bidaiari Astarloa eta Mogel ezagutuko ditu, eta haiek euskarari buruzko informazio asko emango diote. Humboldt izango da euskara Europan zehar ezagutarazten hasiko den lehenengotariko ikerlaria.

Hegoaldean, bada, hiru hamarkadatan euskarazko libururik publikatu gabe egon ondoren, Bizkaian nahiz Gipuzkoan idazteari ekiten diote eta ahal den neurrian argitaratzeari. Banaka batzuk urte hauetan inprimatuko dira eta beste asko hurrengo hamarkadetan edota askoz beranduago.

Gerrate bien artean kaleratutako euskal liburuak: Juan Antonio Mogel (1745-1804): “Konfesio eta komunioko sakramentuen gañean erakasteak” (1800); “Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones” (1802); “Konfesino ona...” (1803).

Pedro Antonio Añibarro: “Esku liburua eta be-rean eguneango kristiñau zeregiñak” (1802); “Lore sorta espirituala ta propositu santuak” (1803).

Juan Bautista Agirre: “Konfesio ta komunioko sakramentuen gañeko erakasteak”(1803). Bizenta Mogel (1782-1854): Erdi Aroko erostariak alde

batera utzita, Juan Antonioren iloba hau dugu euskal letretan agertzen zaigun lehen emakumea. Bere gaztetako lana, “Ipui onak” (1804), Esoporen alegietan dago oinarriturik.

Napoleonen aurkako gerra amaitu eta laster agertu ziren euskarazko lanak. Batzuk aurretik idatziak izango ziren ziur asko: Bartolome Mada-riagaren “Euskal Errijetako olgeeta eta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba” (1816); “Ikaskizunak” izenburuko trilogia (1816-1817-1819).

Pedro Astarloa (1751-1826), apologistaren anaia-aren “Urteko domeka gustijetarako berbaldi ikasbidekuak”, bi tomotan (1816 eta 1818), eta Juan Jose Mogelen (1781-1849), Bizentaren anaia-aren “Baserritar nekezaleentzako eskolia (1816) eta “Eguneroko lan on ta erregubak meza santuba ondo entzuteko” (1820).

Jose Kruz Etxeberriaren “Deboziazko bizitzar-ako sarrera” (1821), San Frantzisko Salesen lan ezagunaren itzulpena; “Ongi bizitzeko ta ongi il-tzeko laguntza” (1824).

Juan Ignazio Iztuetaren (1767-1845) “Gipuz-koako dantza gogoangarrien kondaira edo histo-ria”(1824).

Haietaz gain, idatzi eta mende berean urte as- kotara argitaratutako euskarazko lanak honakoak izan ziren:

Juan Antonio Mogelen Peru Abarka (1881). XIX. mendeko euskal lan garrantzitsuenetako bat, ez erlijiosoa, ia 80 urtean egon zen ezkutuan; eta “Pascalén gogamenak” (1899).

Juan Bautista Agirrereren “ Erakusaldiak” izeneko trilogia (hirurak 1850ean inprimatuak)

Jose Ignazio Gerrikoren (1740-1824), Segurakoa berau, “Kristau doktriña guztiaren esplikazioaren saiakera”(1858), mila orrialdetik gorako lan mardula, 1805 inguruan moldatua.

Joakin Lizarraga (1748-1835). Idazle nafar honen lan oparoa bera hilda gero argitaratu zen. Hona banaka batzuk: “Urteko igande guztietarako platikak edo itzaldiak” (1846), 1802an latinez sinatutako sarreratxo bat dakar; “Jesus. Kopla gisa batzuk molde gutitakoak, zelebrazuz Jesus Jau-naren amoreak eta faboreak”(1868), Bonaparte printzeak argitaratua.

Bosnian, berriz, Literatura idazteko, *bosancica* alfabetua hasi ziren erabiltzen frantzizkotarrak serbiarrek zirilikoa zerabilten bitartean. Otomandarraren aurretik eta Napoleonen garaiaren ondoren, jatorrizko bosniar estatuaren memoriari eutsi zioten frantzizkotarrek; XIX. mendeko Filip Lastricen idazkiak, horren lekuko.

Nicidor Ducic fraide ortodotxoak bertako historiari buruzko bederatzi liburu argitaratu zituen garai berean.

Euskal Herrian bezala, orduko testu askok asko itxaron behar izan zuten plazaratu arte. Adibidez, Gavro Vuckovicen “Menpekotasuna Askatasunean” edo “Ante Knezevic anaiaren liburu odoltsua” testuak turkiarrek zentsuratu zituzten eta urte batzuk idatzi ondoren kaleratu ziren (Austria-Hungariaren agintepean).

Ivan Franjo Jukic fraide frantzizkotarrak askatasunaren aldeko idazkiak zabaldu zituen genero literario desberdinak erabiliz eta oso ezagun bihurtu zen.

Halaber, Vaso Pelagic serbio-bosniarrak ospe handia lortu zuen emantzipazio mugimendu politikoaren irudi bilakaturik.

Hau guztia, bertako hizkuntzaz idatzitako literatura nazional erromantikoaren loraldian gertatu zen, zeinean, identitateen aldeko borroka, turkiarren menpe lau mende pasatu ondoren, indar handiaz hasi ziren hedatzen.

Napoleonon gerrak bukatu ahala, Istambuleko gobernuak Bosnian ez zuela jarraitzerik ulertu zuen eta autonomia handia eskaini zien bertako buruzagiei. Horrekin batera erreforma politiko modernoak etorri ziren eta, XIX. mendea amaitu aurretik, berriz, Austria-Hungariaren agintepean geratu zen lurralde osoa.

Beraz, Bilboko San Frantzisko Konbentuan bezala, non Pedro Jose Astarloa buru zen Napoleonon sasoian, inbasoreei aurre egiteko jitea ohi-turazko jarrera aldarrikatua izaten zen. Horra hor Astarloaren “Antxinako euskaldunen alabantzak”:

“Gorde izan da
garbiro fedea
baita gure legeak
eta berbitea.
Erbestear gaistoak
nahi eukezan galdu

euskaldunak eztabe
bururik makurtu.”

Dubrovniken, garai haietatik oraindaino bitartean zutik dagoen frantzizkotarren etxea eta farmazia, aipatu erresistentziaren adibidea dugu Kroazian.

Izan ere, historia lokalak soilik garai oso baten aldaketaren berri ezin digu ulertarazi. Aitzitik, ohiko gerturatze “estatalistak” nahiz “ historia militarrek” ez dute asko balio ideien historiari erreparatu gabe.

Zer erakusten digu, ordea, gontz garaia deritzanak?: Euskal Herrian nahiz Bosnian eraldaketa sasoiak izan diren haietan, eguneroko bizitzan edo literaturan, antolatzeke moduetan edota justizia ulertzeko unean, jatorrizko kulturaren jarduerekin batera, nazio aldarrikapenak ere pizten direla eta haiiek direla, hain zuzen ere, inperialismoari aurre egiteko funtsezko balioa.

Ez ziguten hori esan 1813ko Donostiako lehen mendeurrena ospatzerakoan.

Baieztapen honetatik gertu ibili ziren ekarpen batzuk 1813ko bigarren mendeurrena ospatzerakoan (hurbilagoak Donostiakoak Gasteizkoak baino).

Halere, bakea ez zen 1814eko apirilaren 18ra arte sinatu, eta hura hitzartu ondoren Baionako borrokak apirilaren 27ra arte iraun zuen.

Eta Wellingtonek ekainaren 14ra eutsi zion aginteari baina 1813/14. urte pareak europear bi-

zierari kultur aldaketa ekarri ziola ez dago dudarik, hala hizkuntzen ukipen egoera berriak sortuz nola muga politikoak jartzerokoan edota identite kulturei (nazionalei) kasu egiterakoan.

ORAINGO SASOIAK

(Identitateak, bizkuntzak eta mugak direla eta)

Kasu honetan bezalaxe, esan liteke edozein definizio kontzeptual aurretiazko arazoren bati emandako erantzuna baino ez dela (François Chatelet, *Chronique des Idées Perdues*, 1981). Honela bada, zergatik ez digute hori esan 2013ko Donostiako bigarren mendeurrena ospatzerakoan, gontz garaian Euskal Herrian nahiz Bosnian, erresistentzia jarduerekin batera, nazio aldarrikapenak ere pizten zirela?

Bistan denez, XXI. mendean estatu espainiarrean zergatik den bat nazionalista galdetzeak ez du emango, adibidez, XIX. mendeko Espainietan emango zukeen diskurtso modu berdina (Michel Foucault, *L'Ordre du discours*, 1971) baina bitan oinarrizko ardatz berberak daude.

Lehenengo Berrezarpen borbondarrean (1815ean) eta Bigarren Berrezarpenean (1978), bietan, espainiar nazionalitate hautsezinaren sakralizazio konstituzionalak edozein aldaketa politiko baldintzatzen du, zeinahi jarrera libre debekatuz.

Honela bada, hau bezalako galdera teoriko bati erantzun dakiokenez ikuspuntu filosofiko, histo-

riko, soziologiko, juridiko, literario edota historikoen bidez, nahitaez bihurtzen da, orain eta hemen, arazo praktiko eta politiko. Areago, gaurko egoeran eta auzi honen aurrean, ondoriozko erantzun mota edo/eta definizioa orobat bilakatzen da definitorio bai emititzen duenarentzat baita diskurtso guztiarentzat ere. Honen harira, aportazio guztia irakurri behar da galdetutakoaren erantzun/proposamenen ondoriozko kode edo giltzarrien bidez (Pierre Bourdieu 1980).

Honen guztiaren aurrean, eta kontuan izanik *zergatik izan independentista hemen eta Bosnian?* galderari erantzutea, testuinguru honetan nahitaez dela erantzun praktikoa eta politikoa, ezin dut inola ere gaia jorratu aurretiazko testuingurua saihestuz, horretara bultzatzen nautelako Euskal Herriko hizkuntzan idazle izateak eta inolako eragozpenik gabeko adierazpen askatasunaren aldeko izateak. Bihoaz, bada, lehenik eta behin nire erantzuna ulertzen lagunduko duten hainbat erreferentzia, azken batean eta, lehenago esan bezala, guztiz politizatua izango den erantzuna.

TESTU-AURRE NAZIONALISTAK ETA NAZIONALISMOAREN AURREKO TESTUINGURUAK

Badirudi Zuzenbidearen filosofiako tratadisten artean onartua dagoela gizonaren aristoteliar kontzepzioa, zeinak baitio mendebaldeko pentsamendua eta, hedaturaz, esan liteke, pentsamendu politiko garaikidea bere osoan ezaugarritzen duen animalia politikoa dela gizona, gizateriaren ia sinonimoa den erreferentzia ahalmen politiko propioa.

Bestela esanda, gaur politika gizarte alor bezala ulertu arren eta, ondorioz, gizona kolektibo sozial jakin bateko partaide bezala kontsideratzen da politiko, kontzepzio grekoak, ordea (Aristoteles mazedoniarra izan arren “kulturalki” heleniarra zen), ahalmen politikotik eratorrarazten zituen giza sozialtasunaren ezaugarri propioak, eta hori kultura jakin batean oinarritzen zen, esan nahi baita, hizkuntza domeinu jakin baten baitan (V́ctor Ǵmez Pin, 1989).

“Hiritar grekoak” ez zirenak, hots, politikan parte hartzera behartuak ez zeudenak, ez ziren gizonak aristoteliar zentzuan, eta aldi berean, berriz, identitate politiko “proto-nazionala” lurraldeaz independentea zen; hala, bat izan zitekeen hiritar grekoa Sizilian, Rosesen edota Efeson...

Jakina, emakumeak ez ziren gizon kontsideratuak, baina ezta esklaboak, atzerritarrak eta gainerakoak ere, zeren eta identitate politikoa baitzen gizakia ezaugarritzen zuena eta ez alderantziz.

Nork hartzen zuen, orduan, bere gain atenastar komunitatean edota Sirakusakoa "guztien ongia" kudeatzearen beharrezko zama astuna? Hiritar grekoek, jakina. Adierazi den bezala, herritartasunaren kontzeptu horrek, identitate horrek nahiz eta bazuen batere baztertzekoak ez ziren ondorio bat baino gehiago (hala nola, adibidez, ez-hiritarrak eskubidedun gizatiar subjektu bezala kontsideratuak ez izatea eta perspektiba horrek ezaugarritzea politikaren beraren geroagoko kontzepzioa...).

*Ius sanguinis*aren erromatar teoriak kontsakratuko zuten jurudikoki interpretazio joera hau eta *nasci* (jaino) latindar aditza izango zen gobernu sozialaren (nazionalaren, XIX. mendetik hona) kudeaketa subiranoan parte hartzeko kriterioak zehazteko erabiliko zena.

Honela, bada, Erdi Aroan, gremioen (*universitas*) artean aurkituko dugu zurginen, upelgileen edo sarrailagileen *nazioa* adierazpen kolektibo sozialak aipatzeko gaur egun inola ere identifikatuko ez genituzkeenak nazioekin perspektiba identitario eta/edo politikoa ildotik (P. Vilar 1980). *Ancien Régime* delakoarekiko haustura iraultzaileak ekarri zuen berekin ezker politikoa atxikitako nazionalismoaren kontzeptua. "Gizonaren eskubideen deklarazioak" aldarrikatu zuen "subirania oro nazioaren baitan datzala" dioen printzipioa. Honela, 1789tik aurrera nazionalismoa izan zen posible

egin zuena monarka subiranoarekiko leialtasuna bezala ulertzen zen nazionalitatea kolektibitatearentzat (herriarentzat) subiraniaren errebindikazio politiko bihurtzea.

Antolamendua eta legitimazio politikoa zehazteko identitate identifikatzaile eta erreferentzial bezala komunitate gizatiarra eta kulturala nabarmentzeak ekarri zuen berekin XIX. mendeko European agertu ziren mugimendu iraultzaile gehienak mugimendu nazionalistak izatea, aldarrikapen konstituzionalei oso hertsiki atxikiak, azaleratzen ari zen gizarte berri horren eskubideak berregituratuz guztien ongia kudeatzeko bermea izango zukeen araudi juridiko berrian oinarritutako politika eraberritua bilatuko zituzten aldarrikapenak (B. Badié, 1985).

XX. mendearen hasieran, ordea, nazionalismo kontrairaultzaile eta eskuindar bat agertuko da, bere aurrekoak lortu zituen aglutinazio eta mobilizazioaren potentzialitateak bereganatu nahirik. Bertsio errepublikarren aurrean, nazionalismo iraultzaileak defendatzen zituen partehartze politiko herritarraren eta/edo ordezkariaren aurrean, XX. mendeko nazionalismoak lehenagoko formak berreskuratu nahi zituen, hots, sorterritxo eta tradizio aldaezinekiko leialtasuna berrezartzea. Egoera horretan, eskuindar politika nazionalista, militarista bezain inperialista bilakatu zen eta, gainera, ideologia nazionalistaren identifikazioa jarrera psiko-soziologiko txobinisten ezaugarriekin monopolizatzen saiatu zen, errebindikazio emantzipatzaile antagonikoek logikaz kritikaturiko ezaugarriak.

Honela bada, esan genezake Alfonso Sastreren simul bat erabiliz (“*Los intelectuales y la Utopía*”, 2002), nazionalismo modernoa kolesterola bezalakoa dela, hots, nazionalismo ona badagoela (liberazio eta transformazio politiko-sozialaren ideologia) eta beste bat txarra (tradizioari loturiko pribilegioak mantendu nahi dituen eta jarrera arrazista eta baztertzailerak erabiltzen dituen). Estatu eta nazioa identifikatuz eta gutxiengoak baztertuz XX. mendean garatu den nazionalismo atzerakoi hau agerian geratu da bere eraikitze prozesuan eta bere eraginkortasun politikoan, besteak beste, E. Hobsbawm eta T. Rangeren azterketa historikoen bidez (“*The intervention of Tradition*”, 1983), nahiz eta bere irakurketa, dirudienez gaizki asimilatua, erudituek estatu-nazio inperialista honen mesedetan erabilia izan den nazionalismo emantzipatzaileari ideologikoki erasotzeko (J. Juaristi, “*El Bucle melancólico*”, 1997).

XX. mendearen hondarrean, nazionalismoaz azterketa uholde paregabea gertatu zen. Eta horregatik jada jakinik A.D. Smitthen “*Nazionalismoaren teoriak*” (1976) teoriengatik E. Gellnerren “*Nazioak eta Nazionalismoak*” (1988) teoriengaraira arte dagoen bide intelektuala, G. Herauden “*L’Europe des Ethnies*” jada klasikoa barne, gaur zail gertatzen da *Zer da independentista izatea?* galdera aukera politiko huts izatera murriztea. Alderantziz, testu hurbiltze hauek guztiek ikuspuntu bat hartzera behartzen gaituzte, ikuspuntua nahitaez diziplinarteko eta konplexuagoa izan arren, ez delarik inplikazio gutxiagokoa.

GLEICHSCHALTUNG

Gaurko globalizazio prozesuak eraikitako uniformizazio bitalaren ondorio kulturala ez da xakobinismo napoleondarra edo nazismoak nahi zuen homogeneizazio sozial zorrotza besterik: Gleichschaltunga (kolesterol txarra, Sastrearen hitzetan).

José Antonio Primo de Riveraren falangismo espainiarrak alemaniar pentsamendu nazional-sozialistari maileguz hartu zion “unidad de destino en lo universal” hura XX. mende osoaren berezitasun ezaugarritzailetako bat bilakatu zen eta baita politikoki ezaugarritu zuen nazionalismo atzerakoi ere (Arendt. H. “*Le système totalitaire*”, 1972). Ondorioz, bada, XXI. mendea estreinatu duen globalizazioaren ondorioa ezin da izan politika eskuindar eta autoritario horren formulazio berria baino, bertsio inboluzionista eta atzerakoi baten bidez XIX. mendeko nazionalismo liberatzailea birdefinituz garatu zena.

Pertenentziazko komunitate linguistiko-afektibo edo kulturala (*Gemeinschaft*) eta bizitzako egitura legal eta sozialaren (*Gesellschaft*) artean dagoen kontraesana jada aztertu zuen behar bezala Ferdinand Tönierek (“*Communauté et socie-*

té”, 1944) nazismoaren ondorioak ezagutu baino lehenago ere oharrarazteko eskumen ekonomiko-legalak lituzkeen estatuaren inposizioak lekarkeen inboluzio arriskugarriaz, sektore sozial bakarraren onurak soilik bilatuz oinarriko komunitate kulturalaren desagertzea zekarkeelako.

Honela ulertu behar da, bada, gaur egungo ultraliberalismo hau, antolamendu ekonomiko-sozial posible bakar bezala aurkeztua, balio komunitarioen deusezte ahalegin bat gehiago bezala kontsideratu behar dela, Europan nola subirania-ren hala XVIII. eta XIX. mendetako iraultzen abiapuntu izan ziren balioak.

Gramscik (“Cahiers de prison”, 1978) jada oharrarazi zuen etorkizunerako ikusten zuen “bizitzaren eta ezagutzaren amerikartzeaz” eta, beraz, gizartea aglutinatzekeo elementu bezala balio komunitario/komunistak ustez galdu egingo zirela.

Inperialismoa kapitalismoaren fase gorena dela iragarri zuen Leninek eta gaur joera hauen baitan agertzen da, estatu global baterantz doan garapen geraezina bezala, non merkatua, justizia eta politikaren era exekutiboak (koakzioa eta/edo interbentzio armatua) diren geroz eta ilunagoak eta kontrolaezinagoak.

Arendtek “autoritarismoen mendea” bezala definitu zuen XX.a (*Los orígenes del totalitarismo*, 1982), eta Ternonek “kriminala” bezala (“*El Estado criminal. Los genocidios del siglo XX*”, 1982) eta orduantxe agertu zen bertsio iraultzaile bat bai herriaren subirania eta bai mugimendu sozialak aldarrikatzen zituen, Töniesen ildotik tradizio

komunitarioen berrirakurketa egiten zuena eta, azken finean, proposatzen zuen gizartea aglutinatzeko sistema zaharrak, eraberrituz, berriro onartu eta sozialki berregituratzea, hala nola XIX. mendeko europar nazionalismo emantzipatzaile zaharra (Châtelet, F. “*Las concepciones políticas del siglo XX*”, 1986). Gaur eta hemen, koordenatu hauetan oinarritzen da nire erantzuna, praktikoa eta politikoa. *Zer da nazionalista izatea?* galderari buruz.

NAZIONALISMOA XXI. MENDEAN

Birzikla dezagun estatuaren ideia historikoa. Tratatu klasikoek akademikoki bereizi nahi izan dituzte nazionalismoa eta abertzaletasuna, lehenari irrazionaltasuna, xenofobia, arrazismoa eta bereizkeria eratzikiz, eta bigarrenari, aldiz, progresubalioak, arrazoizkotasuna eta hiritar aglutinazioa (Habermas, J. *“Raison et légitimité: problèmes de légitimation dans le capitalisme avancé”*, 1978).

Nahiz eta badiren salbuespen nabarmenak planteamendu honen aurrean (M. Guibernau, *“El nacionalismo: ¿Ideología de la modernidad?”*, 1994), politika estatualistek garatzen duten nazionalismo inperialista hain da nabarmena, hala nola ura arrainaren begien aurrean, eta, aldiz, askapen mugimendu politikoek eragozpen gogorak izan dituzte nazionalismoa iraultzaile bezala identifikatu ahal izateko (Arieh Yaari, *“Le défi national: les théories marxistes sur la question nationale...”*, 1978).

Abertzaletasun estatala inperialismo hutsa den bezalaxe, XXI. mendeko nazionalismoa homogeneizazio globalizatailearen aurkako identitate komunitarioaren errebindikazioa da. Dibertsitatearen alde jokatzeko du (hizkuntza, biologia, kultura

eta abarren aldeko dibertsitatea). Kontzeptu dese-roso eta aldaketa sozialaren formulazioa da. Hautabide politikoa (Ulises Moulines. C. “*Manifestu nacionalista*”, 2008).

Estatua botere egitura bezala Europan Erdi Arotik abiatu zen, batasun erlijiosoaren beharra izan zuen eta; beraz, judu eta mahometarrak esetsi eta egotzi egin zituen, erlijio gerrak eta heretikoan pertsekuzioa izan zuelarik oinarri. Iraultza indus-trialaz gero, nazionalismo “zibiko” mendebaldarra sortu zen (A. Smith, “*Tres conceptos de nación*”, 1994) gaurko estatu-nazioaren eredu eraiki zue-na, bere osagaien baten etnia eta/edo nazioen ba-ten hizkuntza, kultura, justizia modu, genealogia eta interes bereziak bere nagusitasun aparatu eta kontrol sozialaren bidez pribilegiatzea oinarrizatz hartuz.

Hasiera batean Europan bakarrik izan bazen ere, garai batean erlijio batasunaren bidez agluti-naturiko Erdi Aroko estatuak bezalaxe, *politie* eta nazioaren batasunak ere hizkuntzen, kulturen eta nazioen aurkako pertsekuzioak pairatu behar izan zituen, ez zutelako nazio menderatzaileak bere pri-bilegioen defentsan burutzen zuen partidismoaren aurka haien bermeak eta zuzentasuna segurtatzeko estaturik.

Deskolonizazio prozesuak, aldi berean, erabat europarra eta intrintsekoki zuzengabea eta mun-du osoari interesatzen zitzaion erakunde politiko mota hau hedatuz joan dira. Antzeko zerbait ger-tatzen da, adibidez, Unibertsitatearekin. Hau izan-nik XIII. mendean Europan sorturiko ikerketa eta

goi irakaskuntzaren modalitate bat, antolamendu gremialen sintesia eta garai hartan sortzen ari ziren hirietan bizikide zen katedral klero hiritarra abiapuntu harturik, Unibertsitatea hezkuntzaren maila gorenen paradigma global bihurtu da.

Iraultza frantsesaren ondoriozko nazionalismoaren kasuan, Latinoamerika, Afrika eta Asian jatorri oso desberdineko kultura eta herriek ideologia politikoko hori bera onartu dute, maiz beren historia propioa eta gizartea berregokituz, menpean zeuzkan inperialismoari beste alternatiba batekin aurre egiteko. Gure inguru hurbilenean, inperio espainiar, britainiar eta otomanoaren sakabanatze historikoa etnia haien inguruetara ari da iristen (etnia gaztelar, ingeles eta turkiarra...), lehenago egitura estatalak berentzat baliatu zituztenak hain zuzen. Irlandarren, euskaldunen eta kurduen emantzipazio linguistiko eta sozialak sezesioa eta independentzia behar dute beren gizarteak era subiranoan antolatu ahal izateko eta, orain eta hemen, progresu sozialaren eragile giltzarria dira oraindik amaitu gabe dagoen humanizazioaren martxa aurrera eramateko. Hura zen Kanten aldarria, Iraultza Frantsesa inoiz kondenatu izan ez zuenaren ikuspegia.

Honen guztiaren arabera esan liteke, Estatuaren eraikuntza klasikoaren aitzinean, herria dela askatasun erreferentzia bakarra, bere balio sistemekin, menperatuak dauden bere hizkuntza eta kulturekin (M. Urkola, "Soziologia kritikotik hezkuntza orokorrera", 2003). Ildo honetan independentismoa ez litzateke herriak Estatu arrotz bezain men-

peratzailearekiko duen truke desorekatuaren kontzientzia hartzea baino, eta ondoriozko alternatiba sezesionista formulatzea.

Hala ere, zaila litzateke nazionalismo jakin bat formulatzea ez badago beharrezko lehengairik. Pierre Vilar historialariak zioen (1998) nazionalismoa “historiaren ziklo luzeak” aztertzen dituzten ikertzaileek bakarrik uler dezaketela, zeren eta bere etnia behintzat kontserbatzeko Estatu bateratzaile eta garantistarik gabeko populazio jakin batean, mendeetan zehar nazio ezaugarriak etengabe sortzea da froga nola soziologoak, politologoak eta beste era batzuetako egoera-aztertzaileak ez diren gauza fenomeno horiek kalibratzeko.

1813an Donostia erre zuten. 1936an ez, behintzat. Irailaren 13an espainiar kolpezaleak Donostian sartu zirenean ekin zioten, euskal identitatearen pertsekuzioan, gure hizkuntzan idatzitako liburuak erretzeari. Liburu denak desagertzea nahi izan zuten baina pertsekutatuenak hiztegiak izan ziren, hierarkia linguistikorik ez dagoenaren froga baitziren, hizkuntza jakin batzuen inposizio soziala, hizkuntzak, berez, horizontalki antzekoak direlako adierazpen eta truke (itzulpen) ahalmenetan.

Baina gauza jakina da, hiriak erre badaitezke, liburuak ere bai eta liburuak erretzen diren tokian pertsonak ere erre egiten direla. Horregatik, gure literatura sortzetik gaur arte pertsekuzioak eta debekuak ezaugarritzen dute. Pertsekuzio politikoa medio izan zen Bernat Etxepare gure lehen idazle ezaguna atxilotua 1545ean. 1936ko estatu kolpearen ondoren euskal intelektuaren belaunaldi

ia guztia fusilatua izan zen (Aitzol, Lauaxeta...). Kartzelan ekin zien bere ikasketei gaurko euskara batuaren gurasoak (Koldo Mitxelena); eta halaber literatura modernoaren berritzaileen idazlanak ere (Txillardegi, Xabier Amuriza...) eta gaur bertan ere idazle erbesteratuak (Sarrionaindia, Iburguren) edota espetxeratuak (zail da izen bakar batzuk hona ekartzea...) literatura garaikidearen munduan ereduak ezartzen ari dira.

XX. mendeko liburu erreketak ez dira izan Berpizkundeko gaztelar Inkisizioaren jarraipena baino.

“Historiaren ziklo luzearen” ikuspegi honekin, gaur hain boladan dauden E. Hobsbawm eta T. Rangerren irakurketa murriztaileen aurrean, halaber ondoriozta liteke nazionalismoen eraikuntzak herri baten historia moldatu, nabarmendu, egituratu, orientatu eta baita faltsifikatu dezaketela ere, baina oso zaila dela bere osoan “asmatzea”.

P.S. Mancinik nazioa “lurralde, jatorri, ohitura eta hizkuntzaren bidez elkarrekin bizitzeak eta kontzientzia sozialak eratutako gizakien gizarte natural” bezala definitu zuen (“Sobre la nacionalidad”, 1985), eta definizio honek nazionalitatea zehazteko Gizarte Zientziek erabilitako ezaugarriei elementu subjektibo bat erantsi zien, hau da, kontzientzia nazionala. Honela, bere baitan sentimendu erreferentzial eta identitario hori bereganatzen duen herria, kultura, etnia edo talde soziala bilakatzen da, hain zuzen ere, eskubideen subjektu, eta beraz, lurraldez Estatu diferentziatu bihurtzeko eskubidea atxikitzen zaio. Nazionalismoa da, lo-

gika hutsean, subjektu nazional eta eskubidedu-
naren kontzientzia hori garatzeko politikoki lan
egitea aldarrikatzen duen ideologia.

Ildo juridiko-politiko honetan, bada, nekez
ahal daiteke nazionalista izan sezesionismoa izate-
tea posible dela onartu gabe, zeren eta ezein herrik
ezin baitu bere buruaz libreki baliatu bortxaturik
daukan Estatuaz aske izatea galarazten bazaio.

Gaurko gontz garaian, agian inoiz baino areago,
ari da “ius cogens” (eskubide hertsagarria) plebiszi-
tuaren bidea bakezko soluzioa eragozten hainbat
kasutan non herriek politikoki, errebindikazio
nazionalisten bidez, beren buruaz baliatzeko es-
kubidea planteatzen duten (Michaud, “Droit à
l'autodétermination et pouvoir politique”, 1980).

Ildo beretik, nola gaurko Estatu-Nazioen Kons-
tituzioen parterik handienak hala erlazio politikoen
eredu berriak ekar ditzaketen estatuen arteko egitu-
rek (Europar Batasunean bertan adibidez) merkatu
deitu librea kotsakratzen dute konstituzionalki.
Honela bideraezin bihurtzen dute herriek eta na-
zioek beren aberastasunak eta baliabide naturalak
libreki baliatzeko eskubidearen ariketa (1974ko
abenduaren 12ko AG3281 Ebazpena).

Egoera honetan, bada, orain eta hemen, inter-
nazionalismoa pentsaezina da ez bada abiatzen
nazionalismotik (Michel Cahen, “*L'inter-nationa-
lisme contre la mondialisation*”, 2001).

Honela bada, esan bezala politikaren jatorri
grekoaren kontzeptutik abiatuz eta XIX. mendeko
“gontz garaia” igaro ostean, ondorioztatu behar ge-

nuke globalizazioari gaurko koordenatuetan aurre egiteko era iraultzailea nazionalismo independentista litzatekeela soilik.

Zer da, orduan, nazionalista izatea?

Zalantzarik gabe, erreferentzia komunitario eta identitarioen garrantzi ideologikoaren kontzientziaren jabe izatea, truke desorekatuaren mundializazioari alternatiba politikoak formulatzeko.

Beren etorkizuna libreki erabakitzea lortzen ahalegintzen diren herrien erabakimen kolektiboaren prozesuak balaztatzeko erabili ohi den “ius cogens” aurrean ez etsitzea.

Horra inter-nazionalista izateko era: anti-imperialista eta independentista izatea.

Donostian edo Travniken gontz garaietan.

BIBLIOGRAFIA OROKORRA

- AGUIRRE, J.A. (1942): *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín*. http://www.lehendakariaguirre.eu/pdf/Libros/5_1.pdf
- AGIRREAZKUENAGA, J. (2013): “Las guerras napoleónicas en Euskal-Herria”. *Rev. Euskal-Herria*.
- ARENDT, H. (1972): *Le système totalitaire*. Le Seuil.
- BADIE, B (1985): *Formes et transformations des communautés politiques*. PUF.
- BLOM, Ph. (2012): *Gente peligrosa*. Anagrama.
- BONAPARTE, N. (2013): *Mi testamento*. Fórcola.
- BOURDIEU, P. (1989): «L’identité et la représentation, éléments d’une réflexion critique dans l’idée de région». *Actes de la recherche en sciences sociales*.
- CAHEN, M. (2001): *L’inter-nacionalisme contre la mondialisation*. Robert Lafont.
- CHÂTELET, F; CLASTERS, H; MOUREU, P.F; KORINMAN, M; PISIER-KOUCHNER, E. (1978): *Histoire des ideologies*. Hachette.
- CHÂTELET, F. (1981): *Cronique des Idees Perdues*.
- STOCK (1986): *Las concepciones políticas del siglo XX*. Espasa.

- EGAÑA, I. (2013): *Txikizio baten kronika laburra*. Erein.
- FAYE, J-P. (1972): *Langages totalitaires*. Hermann.
- FERGUSON, N (1997): *Virtual History*. Picador.
- FOUCAULT, M. (1971): *L'Ordre du discours*. Galimard.
- GELLNER, E. (1994): *Naciones y Nacionalismos*. Alianza.
- GÓMEZ PIN, V. (1989): *El saber del esclavo*. Anagrama.
- GRAMSCI, A. (1978): *Cahiers de prison*. Gallimard.
- GUIBERNAU, M. (1994): *El nacionalismo: ¿Ideología de la modernidad?* UIMP.
- HABERMAS, J. (1978): "*Raison et légitimité: problèmes de légitimation dans le capitalisme avancé*". Payot.
- HERAUD, G. (1963): *L'Europe des ethnies*. Press d'Europe.
- HOBBSWAM, E. (1983): *The Invention of Tradition*. Cambridge University Press.
- (1994): *The age of extremes: The short twentieth century, 1914-1991*. Michael Joseph.
- (2001): *Bandidos*. Crítica.
- JUARISTI, J. (1997): *El Bucle melancólico*. Espasa. Premio Nacional de ensayo.
- MANCINI, J.P. (1985): *Sobre la nacionalidad*. Tecnos.
- MICHAUD, Y. (1980): *Droit à l'autodétermination et pouvoir politique*. Galimard.

- MOULINES, U. (2008): *Manifestu nacionalista*. Txalaparta.
- RODRIGUEZ, F. (1997): *El IRA y la paz en Irlanda*. Hiru.
- (2011): *Nacionalismo y Educación*. Delta.
- (2013): “Donostia / Travnik / Dubrovnik / Bilbao” izeneko arikulua in *Astrolabio*. Revista internacional de filosofía, 2013. 15 zbk. 185-195 or.
- SASTRE, A. (2002): *Los intelectuales y la Utopía*. Hiru.
- SIMTH, A. (1994): “Tres conceptos de nación”. *Rev. de Occidente*.
- TERNON (1982): *El Estado criminal. Los genocidios del siglo XX*. Península.
- TÖNIES, F. (1944): *Communauté et société*. PUF.
- URIBE, K. (2008): *Bilbao/New York/ Bilbao*. Elkar.
- VILLAMARIN, L.A. (2010): *Delirio del Libertador*. Kindle.
- VILAR, P. (1980): *Pueblos, naciones, Estados*. Hiru.
- YAARI, A. (1978): *Le défi national: les théories marxistes sur la question nationale*. Anthropos.

BIBLIOGRAFIA EUSKARAZ

- AZURMEDI, J. (1999): “Goethe literatura unibert-salaren kontzeptuaren sortzailea da (Weltliteratur) in “*Goethe: literatura nazional unibertsala*” in *Jakin* 111, 1999ko martxoa-apirila, 63-99. or.
- (1992). *Espainolak eta euskaldunak*. Elkar.
- BBAA (2000): *Burujabetza XXI.mendean*. UEU/ Ezbaika. Ikus, Txillardegiren “Norvegiaren nazio-askapena”. 119/124 or.
- BBAA, (2005): *Kant eta modernitatearen iraultza*. Jakin.
- KANT, I. (1999): *Arrazoimen Hutsaren Kritika*.
- (2005). *Arrazoimen Praktikoaren Kritika*. Klasikoak.
- RODRIGUEZ, F. (2004): *Faustoren itzala*. Utriusque Vasconiae.
- (2005): “Kant: Hezkuntza eta modernitatea” in BBAA: *Kant eta modernitatearen iraultza*. Jakin.
- ROUSSEAU, J.J. (2013): *Gizakien arteko ezberdintasunaz*. Delta.

IDEIAK

BILDUMA

1. Fito Rodriguez. *Jerusalem. Xalimen hiria*. 2008.
2. Eneko Bidegain: *Gerla Handia, muga sakona*. 2009.
3. Fito Rodriguez: *Buru ta zioak*. 2010.
4. Jokin Apalategi: *Euskal Herriaren eman-tzipazioaz*. 2013.
5. Fito Rodriguez: *Justizia Interditaren Poetika*. 2013.
6. Karmele Artetxe: *Einstein Euzkadin Gerraurreko zientzia eta goi mailako kultura euskaraz*. 2014.
7. Fito Rodriguez: *Gontz garaia (Ipuinak kontatu ezin dituztenei)*. 2014.